



Bizkaiko
2006-2011
Gerontologia
Plana



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



Bizkaiko
2006-2011
Gerontologia
Plana



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Edizioa: Bizkaiko Foru Aldundia. Diputación Foral de Bizkaia
Gizarte Ekintza Saila. Departamento de Acción Social
Ugasko 3, 2^a Solairua.
48014 BILBO


Moldiztegia: Mccgraphics

Diseinua: Logaritmo. Diseño y Comunicación Visual

ISBN: 84-7752-419-X

Lege Gordailua: BI-3378-06

I. KAPITULUA	PLANAREN AURKEZPENA	5
II. KAPITULUA	ADINEKO PERTSONAK BIZKAIAN.	9
	1. Bizkaiko adineko pertsonen ezaugarri orokorrak	11
	2. Bizkaiko adineko pertsonen laguntza	17
	2.1. Laguntzako sare informala	17
	2.2. Adineko pertsonen laguntzarako sare formala	19
	2.2.1. Prestazio ekonomikoak	19
	2.2.2. Osasun prestazioak	19
	2.2.3. Gizarte prestazioak	20
	2.2.3.1. Estaldura	20
	2.2.3.2. Etxerik etxeko laguntza.	20
	2.2.3.3. Telelaguntza	20
	2.2.3.4. Eguneko zentroak	20
	2.2.3.5. Egoitza zerbitzuak.	21
III. KAPITULUA	JARRERA ESTRATEGIKOA	23
IV. KAPITULUA	GERONTOLOGIA PLANAREN HELBURUAK	27
I. ERANSKINA	ZERBITZUEN ZORROA	39
II. ERANSKINA	2006 - 2011KO AURREKONTUAK	47
III. ERANSKINA	AZPIEGITURA PLANA	51
	1. Egoitzako plazen estaldura	53
	2. Egoitza publikoetako plazen estaldura.	53
	3. Plazen estaldura eguneko zentroetan	54
IV. ERANSKINA	ARAUDIA.	57



I. kapitulua

Planaren aurkezpena

Agiri honetan Bizkaiko Foru Aldundiaren Gerontologia Plana aurkezten da; lan-proposamen honetan, gizarte zerbitzuetan oinarrituz, 2006-2011 aldian adineko pertsonen laguntza hobetu ahal duten alderdiak aztertuko dira.

Planak helburu eta jarduketa lerro jakinak ditu eta horien helburua, foru erantzukizunetik abiatuz, Bizkaiko adineko pertsonen bizi baldintzak eta kalitatea hobetzea da.

Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde eta eskumen antolamenduaren arabera, berak dauka gizarte zerbitzu espezializatuen eta, hain zuzen ere, mendekotasuna duten adineko pertsonen laguntzaren erantzukizuna.

Adineko pertsonentzako politikek gizarte zerbitzuen arloa gainditu eta, besteak beste, honako alderdi hauek biltzen dituzte: osasuna, pentsioak, etxebizitza, garraioa, zerga-arloa, kultura,... Bestalde, gizarte zerbitzu guztiak ez dira zerbitzu espezializatuak, eta adineko pertsona guztiek ez dute mendekotasunik, gutxi batzuk soilik baitute hori.

Horrenbestez, plan hau, funtsean, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren eskumen arloetan sartzen da, baina ez horietan bakarrik.

Planeko ekintzak planteatzeko orduan, Gizarte Ekintza Sailekin jorratu beharreko ekintzak eta beste erakunde nahiz elkarte batzuetatik garatu beharrekoak bereizi behar dira. Helburua Foru Aldundiaren politikak areagotzea eta osatzea da, jarduketak sustatzeko, koordinatzeko, bultzatzeko eta diruz laguntzeko neurriekin (bere eskumen soilekoak ez diren neurriak).

Lehenengo zatian, agiriak Bizkaiko adineko pertsonen buruzko informazioa ematen du, bai taldearen ezaugarriei eta bai eurengan eragina duten kontingentzia batzuen arretari buruz. Horrela, labor-labor, plan honen bidez erantzun nahi diren erronka batzuk azaldu nahi ditugu: zahartzearen zahartzea, adineko pertsonen astiaren antolamendua, horien mendekotasun egoeraren prebentzioa eta azterketa, sare informalek (batik bat, familia) mendekotasunaren laguntzan duten eginkizuna, etab. Bigarren zatian, plana egituratu eta erronka horiek jorratzen dira, jarrera estrategikoak azalduz, planteamendu objektiboak eginez eta jarduketa ildoak garatuz. Azkenik, agirian honako honi buruzko eranskinak daude: zerbitzuen zorroa, aurrekontuak, azpiegitura plan berria eta adineko pertsonen arteko indarreko araudia.

Ikusten denez, Gerontologia Plan honetan, ekintza eta proposamen berri ugariarekin batera, Bizkaian Foru Aldundiaren eta beste erakunde nahiz elkarte batzuen erantzukizunarekin lehendik garatzen ari diren jarduketak jasotzen dira. Horiek guztiak agiri honetan biltzearen helburua, izan ere, gizarte Foru Aldundiaren iritziz adineko pertsonentzako politikei eman behar zaizkien irizpideen eta orientazioen ikuspegi orokorra ematea da. Gainera, plan hau egitean onartu egin dugu, Bizkaiko gizartearen aurrean, erakunde honek konpromisoa duela adineko pertsonen bizi-baldintzak sustatzeko eta hobetzeko.

Gerontologia Plana lan-proposamena da, Gizarte Ekintza Sailaren 2004-2007 Plan Estrategikoaren kasuan bezala. Esperientziak agerian jarri du halako planifikazioa lan-tresna egokia dela, bai barne-mailan eta bai beste herri administrazio nahiz erakunde laguntzaileekiko harremanetan. Plana, lehenengo Plan Estrategikoaren kasuan bezala, bitartekoa eta tresna da, eta ez helburua; ez da tresna itxia, ikuskapen eta gaurkotze prozesu iraunkorrari lotuta baitago. Prozesu horretan, Bizkaiko Batzar Nagusiek, Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Batzordeak, Gizarte Ekintza Saileko profesional taldeak eta Adineko Pertsonen Batzordeak funtsezko eginkizuna izango dute, eta azken hori solaskide berezia da, Bizkaiko gizartearen sentsibilitateen ordezkaria baita.

Bizkaiko 2006-2011 Gerontologia Planak itxaropen guztiak beteko dituelakoan gaude.

Juan M^a Aburto Rike
Gizarte Ekintzako Foru Diputatua



II. kapitulua

Adineko pertsonak Bizkaian

1. BIZKAIKO ADINEKO PERTSONEN EZAUGARRI OROKORRAK

Bizkaian bizi diren lau pertsonatik batek 60 urte baino gehiago ditu; agerikoa da, beraz, Lurralde Historikoa talde-zahartzeko prozesuan murgilduta dagoela, Mendebalde osoan eragina duen prozesuan, eta horren zergatiak jaiotzasaren beherakada iraunkorra eta bizi-itxaropenaren gorakada dira.

Konparazioak eginez, lurralde bateko zahartze-indizearen erreferentziatzat, 65 urteko edo hortik gorako pertsonen ehunekoa erabiltzen da sarritan, lurralde horretako biztanle kopuru osoari dagokionez. Talde horren barruan, 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera, Bizkaian 214.879 pertsona daude, hau da, biztanleria osoaren %18,9. Ehuneko hori Gipuzkoakoaren antzekoa eta Arabakoa baino apur bat handiagoa da; nolana ere, Estatuko autonomia erkidegoetan eta Europar Batasuneko estatuetan dagoenaren antzekoa da. Lurraldeen arteko proportzio-lotura horixe ikusten da emakumeen eta gizonen datuak bereizita aztertzen ditugunean ere. Dena dela, emakumeen biztanleriak gizonenak baino zahartze handiagoa izan du. Bost puntutik gorako aldea dago generoen artean.

	Guztira	65+	65+(%)
ARABA	299.957	48.773	16,3
GIPIZKOA	688.708	123.957	18,0
BIZKAIA	1.136.181	214.879	18,9
EUSKADI	2.124.846	387.609	18,2

Zahartzea Euskadin -2005. EUSTAT

	Total	65+	65+(%)
BIZKAIA	1.136.181	214.879	18,9
Emakumeak	583.884	125.916	21,6
Gizonak	552.297	88.963	16,1
EUSKADI	2.124.846	387.609	18,2
Emakumeak	1.084.321	226.290	20,9
Gizonak	1.040.525	161.319	15,5

Zahartzea Euskadin-2005. EUSTAT

Bizkaiko adineko pertsona kopurua handitu egin da azken hamarkadotan, eta gainera, oraintsu, adineko pertsonen proportzioak gora egin du, biztanleria osoari dagokionez.

	1981	1986	1991	1996	2001
Biztanleria osoa	1.189.278	1.179.150	1.155.106	1.140.026	1.122.637
65+	109.848	122.757	146.911	178.790	197.155
65+ (%)	%9,2	%10,4	%12,7	%15,7	%17,6

Adineko pertsona kopuruak Bizkaian izandako bilakaera. EUSTAT

Joera hori mantendu egingo da hurrengo urteotan. 2010erako 65 urtetik gorako pertsona kopurua 217.147koa izango da, eta kopuru horrek multzo osoan izango duen garrantzi erlatiboa %19,2koa izango da. 2015erako 227.000 pertsona inguru izango dira, hau da, Bizkaiko bost pertsonatik bat. Generoen arteko aldea mantendu egingo da hurrengo urteotan.

	2005	2010	2015
Biztanleria osoa	1.136.181	1.133.377	1.125.599
65+	214.879	217.147	226.655
65+ (%)	%18,9	%19,2	%20,1
Emakumeak 65+	125.916	127.270	132.886
Emakumeak 65+(%)	%21,6	%21,8	%22,9
Gizonak 65+	88.963	89.877	93.769
Gizonak 65+(%)	%16,1	%16,3	%17,2

Bizkaiko adineko pertsonen biztanleriak izango duen bilakaera. Geure datuak

Adineko biztanleriaren hazkunde horrekin batera, hurrengo urteotan biztanleria horren barruko zahartzea egongo da, hau da, "zahartzearen zahartzea". Ikusten denez, 80 urteko eta hortik gorako biztanleak biztanleria osoaren %6ra hurbilduko dira 2015ean, eta talde horren garrantzi erlatiboa, adineko pertsonen taldearen barruan, gero eta handiagoa izango da.

II. kapitulua

2011tik aurrera, biztanleriak zahartzen jarraituko du, baina 65-75 urte bitarteko adineko pertsonen hazkundea askoz ere handiagoa izango da, 75 urtetik gorako pertsonen taldeak izandakoa baino. Berriro ere, pertsona ugari belaunaldiak iritsiko dira erretiroko adinera.

Aurkezturiko datuetan ikusten denez, adineko pertsonarik gehienak emakumeak dira, %58,6. Ehuneko hori apur bat handitu egiten da, adinean aurrera egin ahala, eta, 80 urte dituzten pertsonen artean, emakumeak %68,23 dira, eta 85 urte bete dituztenen artean %73,64.

	2005			2010			2015		
	Guztira	Emakume	Gizona	Guztira	Emakume	Gizona	Guztira	Emakume	Gizona
Biztanleria	1.136.181	583.884	552.297	1.133.377	583.232	550.145	1.125.599	580.627	544.972
65+	214.879	125.916	88.963	217.147	127.270	89.877	226.655	132.886	93.769
70+	160.367	96.753	63.614	158.166	95.658	62.508	158.758	96.290	62.468
75+	100.198	63.607	36.591	109.449	68.099	41.350	105.345	66.351	38.994
80+	52.612	35.896	16.716	59.489	38.898	20.591	64.730	42.007	22.724
65+ (%)	%18,9	%21,6	%16,1	%19,2	%21,8	%16,3	%20,1	%22,9	%17,2
70+ (%)	%14,1	%16,6	%11,5	%13,9	%16,4	%11,4	%14,1	%16,6	%11,5
75+ (%)	%8,8	%10,9	%6,6	%9,7	%11,7	%7,5	%9,4	%11,4	%7,2
80+ (%)	%4,6	%6,2	%3,0	%5,2	%6,7	%3,7	%5,8	%7,2	%4,2


Biztanleriaren zahartzearen zahartzea. Geure datuak.

Adineko biztanleria modu nahiko proportzionalean banaturik dago, biztanle kopuru osoari dagokionez: Bilbok, Ezkerraldeak, Barakal-

dok eta Uribe Lurraldeko adineko pertsonen bi heren biltzen dituzte.

Eskualdea / Azpieskualdea	Guztira 65+	65+ (%)	Emakum. 65+	E (%)	Gizonak 65+	G (%)
1. Bilbao	75.158	%35,0	45.397	%36,1	29.760	%33,5
1.1. Bilbao	75.158	%35,0	45.397	%36,1	29.760	%33,5
2. Ezkerraldea - Enkarterri	58.555	27,3%	34.182	%27,1	24.373	%27,4
2.1. Ezkerraldea	25.081	%11,7	14.643	%11,6	10.438	%11,7
2.2. Barakaldo	20.016	%9,3	11.425	%9,1	8.591	%9,7
2.3. Meatzaldea	6.609	%3,1	3.887	%3,1	2.722	%3,1
2.4. Enkarterri	6.849	%3,2	4.227	%3,4	2.622	%2,9
3. Ibaizabal - Nerbioi	35.149	%16,4	19.753	%15,7	15.397	%17,3
3.1. Durangoaldea	11.742	%5,5	6.548	%5,2	5.194	%5,8
3.2. Arratia	5.257	%2,4	1.121	%0,9	4.136	%4,6
3.3. Basauri-Etxebarri-Galdakao	13.756	%6,4	9.593	%7,6	4.163	%4,7
3.4. Nerbioi	4.394	%2,0	2.491	%2,0	1.903	%2,1
4. Busturia - Uribe	46.017	%21,4	26.584	%21,1	19.433	%21,8
4.1. Uribe	24.141	%11,2	14.212	%11,3	9.928	%11,2
4.2. Busturialdea	9.132	%4,2	5.240	%4,2	3.892	%4,4
4.3. Mungialde-Txorierrri	6.974	%3,2	3.886	%3,1	3.088	%3,5
4.4. Lea-Artibai	5.770	%2,7	3.246	%2,6	2.524	%2,8
BIZKAIA OSOA	214.879	%100	125.916	%100	88.963	%100

Adineko pertsonen eskualde-banaketa - 2005. DAS.



BFA Bizkaia Foru Aldundia
DFB Diputación Foral de Bizkaia
 Gasteiz, Leizaola
 Departamentu de Acción Social

© Diputación Foral de Bizkaia, realizado por AGS Cartografía, S.L. Bilbao

Adineko pertsonen %95 etxebizitza partikularretan bizi dira, eta horietatik 50.391 bakarrik bizi dira. Hala eta guztiz ere, horietariko asko pertsona autonomoak dira eta jarraipen nahiz laguntza neurri bereziak izan beharko lituzkete. Talde horrek adineko pertsonen biztanleriaren barruan duen ehunekoa, dena den, oraindik ere Europako herri batzuetakoa baino txikiagoa da.

Adineko pertsonen etxebizitzek oinarritzko gabeziak dituzte, zaharrak direlako. Ez dute komun osorik edo irisgarritasun txarra dute; horren ondorioz, bertan bizi diren pertsonak sarritan isolaturik egoten dira euren etxebizitzan. Pertsona asko oraindik ere halako egoeren eraginpean daude. Biztanleriaren eta etxebizitzaren azken zentsuaren arabera, adineko pertsona guztien %18,7k soilik dauka erabateko irisgarritasuna. %55 60-90 metro koadro bitarteko etxebizitzetan bizi dira; hala ere, guztizkoaren %93 soilik dago egoera onean (neurria edozein izan arren), eta zifra hori murriztu egiten da adinean gora egin ahala. Bizkaiko egoera Autonomia Erkidegoko egoera orokorra baino nahiko hobea da; izan ere, bertan, aurrerago eta bizigarritasun baldintza barik dagoen adineko pertsonen etxebizitza kopurua guztizkoaren %0,8koa da, eta Bizkaiko kopurua, berriz, %0,3koa da.

	Bizkaia	EAE	Estatua
Guztira	202.649	361.740	6.796.936
Aurria	0,3	0,8	0,6
Txarra	0,8	1,8	1,6
Akastuna	5,3	6,6	7,6
Ona	93,0	90,3	89,8

Adinekoen kopurua eta ehunekoa, etxebizitzaren egoeraren arabera. Biztanleria eta etxebizitza zentsua. 2001- INE 2004

Hala eta guztiz ere, etxebizitzaren egokitzapena (adineko pertsonen izan dezaketen ezintasunera)

Bakarrik bizi diren adineko pertsonak arriskuko biztanleak dira eta jarraipen nahiz laguntza neurri bereziak behar dituzte.

Etxebizitzaren egokitzapena (adineko pertsonen izan dezaketen ezintasunera) oraindik orokorrean aztertu gabe dagoen gaia da.

Adineko pertsonen denbora luzeagoa ematen dute aisialdi pasiboan, heziketako eta laneko jardueren kaltetan. Euren kultura egoerak apurka-apurka hobera egin du.

oraindik orokorrean aztertu gabe dagoen gaia da.

Denboraren antolamenduari dagokionez, adineko pertsonen gainerakoek baino denbora luzeagoa ematen dute euren bizi-beharrizetan eta, batak bat, aisialdi pasiboan; heziketarako eta lanerako astiaren kaltetan. Oro har, adineko pertsonen kultura egoerak hobera egin du denborarekin; izan ere, adin talde horretara kultura eta hezkuntza ondasun gehiago erabili dituzten belaunaldi berriak iritsi dira.

Adin taldea	≤ 34	35-59	60+
Beharrian fisiologikoak	11,36	11,25	12,24
Lana eta heziketa	6,56	7,07	4,45
Etxeko lanak	1,43	3,04	4,04
Etxeko pertsonen zaintza	1,48	1,44	1,41
Gizarte bizitza	2,03	1,4	1,48
Aisialdi aktiboa eta kirola	1,52	2	2,17
Aisialdi pasiboa	2,19	2,34	4,04
Ibilbideak	1,47	1,28	1,09

Jarduera bakoitzeko eguneroko batez besteko denbora (orduak) Bizkaian - Eustat 2003

Adineko pertsonen taldeak gaixotasun kronikoak izateko arrisku handia dauka. Ia bi herenek gutxienez halako gaixotasun bat dute eta horren prebalentziak gora egiten du adinak aurrerago egin ahala; emakumeek joera handiagoa izaten dute horretarako, baita termino erlatiboetan ere. Horren barruan ez dira patologia fisikoak soilik sartzen. Antsietateak, depresioak eta beste arazo emozional batzuek eragin larria dute adineko pertsonen %9,4an, eta eragin moderatua %11,4an. Dementia hirugarren osasun arazorik

larriena da, gaixotasun kardiobaskularren eta minbiziaren ostean. Gaur egun, 65 urtetik gorako biztanleen %8 inguruk dementzia dute, eta 80 urtetik gorako artean ehunekoa %30ekoa da. Dementia kasu guztien %60 Alzheimer gaixotasunak eragiten ditu.

Bizi-itxaropenak izandako hazkunde iraunkorraren ondorioz, eta jaiotza-tasak izandako beherakada ere aintzat hartuta, gizarte aurreratuetako biztanleria gero eta zaharragoa da; bizi-itxaropenaren hazkundera geure gizartearen lorpen nagusienetarikoa da. Hala eta guztiz ere, urte gehiago bizi izatean, gaixotasun kronikoez, ezintasunak eta mendekotasunak presentzia handiagoa dute, baina horrek urte-bitarte handia ekarri du, erretirora heldu ondoren, astia modu aktiboan erabili ahal izateko.

Ezintasunei, Gabeziei eta Osasun Egoerari buruzko 1999ko Inkestan (EGOEI 99) adierazitakoaren arabera, ezintasunen bat duten pertsonen kopurua biztanleria osoaren %9koa da. Lotura argia dago ezintasun egoeren eta adinaren artean. 65 urtetik gorako pertsona guztien %32 baino gehiagok ezintasunen bat dauka. Ehuneko hori ez da %5era iristen 65 urtetik beherako artean. Presentzia horren hazkundera iraunkorra da adinak aurrera egin ahala, baina 50 urtetik aurrera hazkundera nabarmen bizkortzen da. Ezintasuna duten emakume kopurua gizon kopurua baino handiagoa da, eta ezintasunen bat duten biztanleen %58,3 emakumeak dira. Nagusitasun kuantitatibo hori ez da adin talde guztietan agertzen. Inkestak gizon kopuru handiagoa (emakume kopuruari dagokionez) identifikatu du adin gazteagoetan, eta adin zaharragoetan, joera hori irauli egiten da. Inflexio-puntua 45 urterekin gertatzen da.

Esku arteko datuen arabera, hauxe esan daiteke:

- 65 urtetik gorako %9,4k ezintasunen bat dauka EBOJetan (Eguneroko Bizitzako Oinarrizko Jarduerak). %5,2k ezintasun gogorra edo erabatekoa dauka.
- 65 urtetik gorako %15,3k ezintasunen bat dauka EBOJetan (Eguneroko Bizitzako

Oinarrizko Jarduerak). %11k ezintasun gogorra edo erabatekoa dauka.

- 65 urtetik gorako %16,2k ezintasunen bat dauka EBOJetan. %11,6k ezintasun gogorra edo erabatekoa dauka.

Mendekotasuna duen biztanleriaren etorkizuneko bilakaera zahartze demografikoaren prozesuaren arabera izango da. Horren ondorioz, XXI. mendeko lehenengo hamar urteotan iraupen luzeko hiritarren eskariak gorakada itzela izango du.

Larritasuna aintzat hartuta, hiritarren planifikazioaren ikuspegitik interresgarriak diren sailkapenak egin daitezke. Sailkapen sistema desberdinen artean, plan honetarako ondokoa izan daiteke adierazgarria:

- Mendekotasun larria EBOJak egunero zenbait aldiz egiteko laguntza behar duen pertsona duena da; izan ere, pertsona horrek, autonomia osoa galdu duenez (fisikoa-burukoa), beste pertsona baten laguntza behar du.
- Mendekotasun gogorra, egunero bi edo hiru aldiz zenbait EBOJ egiteko laguntza behar denean, baina laguntzailearen presentzia iraunkorrik gabe.
- Mendekotasun moderatua, EBOJ bat edo batzuk egiteko egunean gutxienez behin laguntza behar denean.

Sailkapen hau irizpidetzat erabiliz, eta kontuan hartuta Bizkaiko adin-taldeetarako aurreikusitako den bilakaera, gaur egun mendekotasun egoeran dagoen pertsona kopurua kalkula daiteke, horren mailen arabera, baita etorkizuneko bilakaera ere:

MENDEKOTASUNA BIZKAIAN			
Urtea	Larria	Gogorra	Moderatua
2005	4.739	8.508	10.909
2010	5.105	9.055	11.033
2015	5.471	9.659	11.630

65+ urteko pertsona kopurua, mendekotasun mailen arabera.

XXI. mendeko lehenengo hamar urteotan, iraupen luzeko hiritarren eskariak gorakada itzela izango du (mendekotasunerako laguntza).

II. kapitulua

Eskualdean egindako zenbatespenak honako emaitza hauek eman ditu:

MENDEKOTASUNA BIZKAIAN			
Eskualdea / Azpieskualdea	Larria	Gogorra	Moderatua
1. Bilbo	1.713	3.058	3.873
1.1. Bilbo	1.713	3.058	3.873
2. Ezkerraldea - Enkarterri	1.243	2.249	2.934
2.1. Ezkerraldea	510	930	1.232
2.2. Barakaldo	434	787	1.030
2.3. Meatzaldea	148	265	340
2.4. Enkarterri	151	267	332
3. Ibaizabal - Nerbioi	733	1.329	1.745
3.1. Durangoaldea	733	445	582
3.2. Arratia	107	195	259
3.3. Basauri- Etxebarri	281	511	676
3.4. Nerbioi	99	178	228
4. Busturia - Uribe	1.050	1.870	2.357
4.1. Uribe	546	974	1.229
4.2. Busturialdea	217	384	478
4.3. Mungialde- Txorierri	153	274	351
4.4. Lea-Artibai	134	238	299
BIZKAIA OSOA	4.739	8.508	10.909

65+ urteko pertsonak, mendekotasun mailaren arabera - 2005.

2. BIZKAIKO ADINEKO PERTSONEN LAGUNTZA

Adineko pertsonen laguntza, batez ere mendekotasun egoeran daudenei dagokienez, eragile askok hartzen dute parte, eta horiek, lehenengo hurbiltze batean, bi taldetan sailka daitezke:

- Laguntza sare informala, zentzu zabalean, adineko pertsonen beharrezanetan laguntzen duten familiakoek, Administrazio bitartekaritza barietateko kontrataturiko zainzaileek nahiz laguntzaileek eta boluntarioek osatuta.
- Behin betiko laguntzako zaintza formalen sarea, profesionalak egindakoa, nahiko egituratuak eta estandarizatuak diren zerbitzuekin, bai etxerik etxe eta bai zentro espezializatuetan.

Mendekotasun egoera horiek aztertzearekin batera, berori baita Gerontologia Planaren alderdi nagusia, aipagarria da zenbait jarduerak garatzen direla Bizkaiko Lurralde Historikoko zahartze aktiboari loturiko politika publikoak sustatzeko. Jarduketa horietariko asko, berriz, toki erakundeek arlo honetan dituzten eskumenak beteta egiten dira, baina horietariko batzuk Foru Aldundiaren sustapen gaitasunaren eraginezkoak dira. Nolanahi ere, adineko pertsonen politika horien aplikazioan duten eginkizuna funtsezkoa da eta horien lanak, euren burua kudeatzen duten elkartearen errealitatea aintzat hartuta, sarritan gaitzitu egiten du planifikazio publikoa.

2.1. LAGUNTZAKO SARE INFORMALA

Sare informala laguntzak eta zaintzak eskaintzen dizkie etxean bizi diren adineko pertsonari. Familiaren protagonismoa ia hegemonikoa da funtzio honetan. Beste sare batzuen eginkizuna (adibidez, lagunak edo auzokoak) ez da garrantzitsua, baina horiek laguntzako beste

modalitate batzuk garatzen dituzte, esate baterako, emozionala, informatiboa edo estrategikoa, eta horiek ere garrantzi handikoak dira adineko pertsonen ongizaterako.

Mendekotasuna duten adineko pertsonen laguntzako sare informalek (familiarik kanpoko sareak) laguntza emozionala, informatiboa edo estrategikoa eskaintzen dute, eta hori garrantzi handikoa da adineko pertsonen ongizaterako.

Zaintzaile guztien %84 emakumeak dira, orain dela hamar urtekoaren antzeko ehunekoak, baina orain gehiago dira (%66) zaintzetan familiako beste kide batzuen laguntza dutenak. Gainera, diru-sarrerarik handieneko familiak lan hori zaintzaileen esku uzten ari dira, gero eta gehiago. Zaintza iraunkorrak

behar dituen adineko pertsonaren bat duten etxeen %14an, zaintzaile nagusia etxeke enplegatua da.

Zaintzaileen batez besteko adina 53 urtekoa da. Adineko pertsonak zaintzen dituztenen %20 65 urtetik gorakoak dira. Izan ere, zaintzailea, gehienetan, alaba izaten da, edo bestela ezkontidea. Zaintzaile guztien %50 alabak dira, eta iloba kopuruak, berriz, beherakada nabaria izan du.

Lagundutako pertsona eta zaintzailea gehienetan elkarrekin bizi dira. Halako kasuetan, familia zabalaren eredu sortzen da, eta eredu hori, biztanleriaren gainerako zatian, desagertzen ari da. Kasu guztien %40an laguntza eman baino lehenagoko bizikidetzaren egoera dago. Lehenagoko bizikidetzaren dutenak azterketatik kanpo utziz gero, adineko pertsonen %43,4 lekualdatu egiten dira, aldi baterako edo behin betiko, zaintzailearen etxera. Gaur egun, laguntza iraunkorra kasu guztien %77ra iristen da, eta adineko pertsonen "errotazio" sistemak beherakada izan du (familiarik kanpoko etxeen arteko errotazioa). Seme-alabak, suhiak eta errainak direnean, laguntzaren erantzukizuna neurri handian beste pertsona batzuekin partekatzen da, eta aldizkako zaintzaren ardura hartzen duten gehienak bigarren belaunaldiko pertsona hauek dira. Aipagarria da bakarrik bizi eta laguntza informala jasotzen duten adineko pertsonen kopuru handia dagoela (%15), eta horrela, errepikatu eta aplikatu egiten da "urruneko intimitatearen" formula. Ho-

rri dagokionez, Europa Iparraldeko herrietakoen antzeko bilakaera ikusten da.

Mendekotasuna duten adineko pertsonen laguntzak urte kopuru handia irauten du (batez beste, 6-8 urte, zenbait ikerketak diotenez). Gainera, laguntza trinkoa behar da, egunero horretan erabili beharreko denborari dagokionez. Hau da, zaintzaileen erdiek baino gehiagok euren lanaldian ematen duten denbora bera ematen dute zaintzan, eta batzuetan gehiago ere bai. Horrenbestez, mendekotasuna duen pertsonaren zaintzak eta lan-jarduera nekez dira bateragarriak, eta, gainera, zaintzaileek ezabatu edo mugatu egin behar izaten dituzte beste jarduerara batzuk.

Hortaz, familiako kidea zaintzeak kostu handiak ditu zaintzailearengan (gehienetan emakumeak) eta eragina dute horren bizitzako alderdi askotan. Lanaren arloan, zaintzaileen %26k soldatapeko lana egin arren, beste %26k ez dute soldatapeko lanik egiteko aukerarik, %11,5ek lana utzi behar izan dute, eta %12,4k lanaldia murriztu beharra izan dute. Horren guztiaren ondorioz, diru-sarrerak urritu eta pobretzea sortzen da etorkizunari begira, ez baita pentsioen arloko edo langabezia babesteko eskubiderik sortzen.

Zaintzaileek jasan behar duten kostua ez da lan-jarduerari uko egitera mugatzen. Zaintzaileen osasunean bertan ere kostu jakinak izaten dira: %51,2 sarritan nekatuta egoten dira; %32,1 deprimetuta egoten dira; eta %28,7k uste dute egiten ari diren lanek kalte egiten dietela euren osasunari. Zaintzaileen %56k osasun arazoak dituztela esan dute (%32k pilulak hartu ditu edo hartzen ditu; %25ek ez dute tratamendurik, baina uste dute behar dutela; %20k errehabilitaziora joan behar izan du; %11k psikiatria edo psikologia zerbitzuak erabili behar izan ditu edo erabiliko ditu; %10ek diote ez dutela "sendagilearengana joateko astirik"). Izan ere, kasu batzuetan familiakoek

egindako zaintzen kalitatea ez dago bermatuta, eta zenbaitetan, tratu txarrak detektatzen dira, kasu batzuetan lehenagoko familia harremanak txarrak izatearen ondorioz, eta besteetan, zaintzaile nagusiaren estresaren eta gehiegizko lan-kargaren eraginez.

Bizitza afektiboari eta harremanei dagokienez, %64,1ek diote murriztu egin behar izan dutela aisialdia, eta %48,4k diote ezin dutela oporretara joan.

Familia baten zaintzak kostu handiak ditu zaintzaileengan (gehienetan emakumeak), eta eragina dauka horien bizitzako zenbait alderditan: lana, osasuna, bizitza afektiboa eta harremanak.

Zaintzailerik gehienek ustez, beharrezkoa da heziketa jasotzea, lan hori ondo betetzeko, baina horien kopuru txikiak jaso du heziketa hori.

Bestalde, orain dela hamarkada bat zaintzaileen %73k zioten lan hori edonork egin zitekeela ondo, inolako heziketarik gabe; gaur egun, berriz, %35ek baino ez dute hori pentsatzen, baina %10ek soilik diote informazioa edo heziketa jaso dutela, batik bat osasuneko profesionalen edo kontsultako liburuen bitartez.

Zaintzaileen %90en ustez, mendekotasuna duten adineko pertsonak zaintzea betebeharrak morala da, baina kopuru horren erdiak dio

nahitaez egin behar dutela lan hori. Familiek adineko pertsonak zaintzen jarraitu nahi dute (baina %28k nahiago dute administrazioen protagonismo handiagoa); hala eta guztiz ere, horretan jarraitu ahal izateko, euskarriko zerbitzuak behar dituzte eta eskatzen dituzte. %85,5ek diotenez, zaintzen dituzten pertsonak etxerik etxeko laguntza zerbitzu publikoak eta eguneko zentroak eduki beharko litzukete. Horrela, orain dela hamarkada bat, eskari nagusiak honako hauek ziren: hileroko soldataren bidezko laguntza ekonomikoa (%61,5), etxerik etxeko laguntza zerbitzua (%30,7) eta gerontologiako zentroetan egindako aldi behingo zaintza, egunez egindakoa edo aldi baterakoa (%11), gaur egun, berriz, aukera nagusia etxerik etxeko, eguneko zentroetan egindako edo beste zerbitzu batzuen bidezko zaintza da (%64), eta laguntza ekonomikoen kopurua %32era jaitsi da zaintzaileen artean.

Azken batean, esaten da zaintzaileek heziketa berezia behar dutela, baina ez dute halakorik; lan itzela eta onarpen urrikoa egiten

Familiek adineko pertsonak zaintzen jarraitu nahi dute, baina horretarako euskarriko zerbitzu publikoak behar dituzte eta eskatzen dituzte.

dute, batzuetan bakar-bakarrik, eta beti ere gauza asko baztertuta arlo pertsonalean eta familieren, gizartearen nahiz lanaren arloan. Hala eta guztiz ere, baliabide erraldoi horren etorkizuneko jokabideak eragin erabakigarria izango du beste zerbitzu formal batzuen eskarian. Ezin da ahaztu azken hamarkadotan egiturazko aldaketak egon direla eta horiek aldatu egin dutela familia modernoa. Horren eraginez, aldatu egingo da herri administrazioek mendekotasuna duten adineko pertsonen zaintzan izan beharreko eginkizuna.

2.2. ADINEKO PERTSONEN LAGUNTZARAKO SARE FORMALA

Ongizate Estatuak, funtsean, pentsio sistemaren, osasun laguntzaren eta gizarte zerbitzuen bidez ematen die laguntza adineko pertsoneri.

2.2.1. Prestazio ekonomikoak

Gizarte Segurantzako kotizaziopeko pentsioen sistema adineko pertsona taldearen prestazio ekonomiko nagusia da. Bizkaian, 2005eko irailean, erretiroko 143.178 pentsio eta alarguntasuneko 70.218 pentsio ordaindu ziren, eta horietariko asko adineko pertsonak jaso dituzte.

	ERRETIROA		ALARGUNTASUNA	
	Pentsioak	B. Besteko zenbatekoa	Pentsioak	B. Besteko zenbatekoa
ARABA	35.565	846,87	14.205	514,83
GIPUZKOA	93.206	848,93	39.659	538,99
BIZKAIA	143.178	902,74	70.218	550,91

GSIN 2005

Kotizaziopeko pentsio horiekin batera, kotizazio gabeko pentsioak (erretirokoak) eta Gizarte Ongizateko Fondoko pentsioak ere badira, eta horiek Foru Aldundiak kudeatzen ditu. Bizkaiko jasotzaile kopurua, 2005aren amaieran, 2.753koa (KEP) eta 504koa (GOF) izan zen. Urte horretarako hileroko zenbatekoak, hurrenez hurren, 301,55€-koak eta 149,89€-koak izan ziren.

Oinarrizko Errenta aldian behingo prestazio ekonomikoa da, laguntzakoa, eta horren helburua bizitzeko oinarrizko gastuei aurre egiteko baliabide ekonomiko nahikorik ez duten pertsonen beharrianak betetzea da. Prestazio hori Eusko Jaurla-

ritzak finantzatu eta Foru Aldundiak kudeatzen du; 2005ean adineko 1.996 pertsona izan ziren horren titularrak (jasotzaile guztien %10,7). Prestazio hori ordezkoa eta osagarria da, lehen aipatu diren prestazioei dagokienez.

Azkenik, Bizkaiko Foru Aldundiak dirulaguntza osagarri batzuk finantzatzen ditu, eskubide subjektibotzat ezarritako prestazio ekonomikoen irismena indartzeko. Banakako laguntzak ematen zaizkie kotizazio gabeko pentsioen eta Gizarte Ongizateko Fondoaren jasotzaileei; horien urteroko zenbatekoak, 2005. urtean, 31,33€-koak eta 143,43€-koak izan ziren, hurrenez hurren. Hala ere, Gutxieneko Bermeko Laguntza Prestazioa ere badago (GBLP), Gutxieneko Errenta jasotzen dutenentzat, eta hori 7,23€ eta 106,88€ bitartekoa da, laguntzaren jasotzaile izandako bizikidetz-unitateko kide kopuruaren arabera.

2.2.2. Osasun prestazioak

Adineko pertsonen osasun laguntza funtsezko faktorea da, mendekotasunaren eragile nagusiak gaixotasunak baitira alde handiz. Mendekotasuna sortzen duten gehienek kontrolak eta tratamenduak behar dituzte mendekotasunak aurrera ez egiteko, besteak beste. Oso ugariak dira patologia kronikoen konpentsaziorik ezak, baita patologia anitzak (erantsitako polifarmaziarekin) eta abar ere, eta horrela, halako gaixoen laguntzako baliabideak (etxea, egoitza, ospitalea) eta baliabide klinikoak (espezialitate desberdinak) erabiltzea oso zaila da.

Adineko pertsonen %98k osasun publikoa erabiltzen dute osasun zaintzak behar dituztenean, eta laguntza maila guztietan zaindu beharreko talde nagusia osatzen dute: kontsultak, etxerik etxeko bisitaldiak eta ospitaleratzeak. Anbulatorioko kontsulten %37,8, izan ere, 65 urtetik gorako pertsonak eskatu zituzten. Etxerik etxeko bisitaldiak oinarrizko laguntzako sendagileek egindako %40ra iristen dira. 65 urtetik gorako %13,3k onartu egiten dute azken 12 hilabeteetan gutxienez gau bat igaro behar izan duela ospitalean. Ospitalean egoteko maiztasuna 1,9 aldiz handiagoa da adineko pertsonen artean, eta 75 pertsonen kasuan 2,2koa da. Ospitaleraturiko guztien %35 eta egonaldi guztien %49 adineko pertsonak egindakoak dira, eta batez beteko egonaldia 10,6 egunekoa da (65 urtetik beherako kasuan 8,03

eguneko batez besteko egonaldia). 65 urtetik gorakoak ospitaleko larrialdietara doazen pertsonen %26 dira, eta bide horretatik ospitaleratzen diren kasu guztien %40ra iristen dira. .

2.2.3. Gizarte prestazioak

2.2.3.1. Estaldura

Gizarte zerbitzuen estaldura oso aldagarria da Europako estatuetan, eta horiek eredu desberdinak dituzte halako zerbitzuak euren politika publikoetan ulertzeko moduan eta familien osaketan.

Herria	Egoitza	ELZ
Frantzia	6,7	12,5
Holanda	9,0	20,0
Alemania	4,1	8,6
Dinamarka	13,0	31,0
Espainia	3,8	3,1

Egoitzetako estaldura eta ELZ Europako zenbait estatutan. Adineko Pertsonen Behatokia.

2.2.3.2. Etxerik etxeko laguntza

Etxerik Etxeko Laguntza Zerbitzua (ELZ) eskari handiko baliabidea da. Zerbitzu horrek balarazio positiboa izan du kasu guztien %91,6an, etxean bizitzen jarraitzeko soluziorik egokiena izateari dagokionez.

Erabiltzaileen %90 adineko pertsonak izaten dira. Eurenez moldatzen ziren adineko pertsonen etxeko lanetan oinarrituriko funtsezko beharrianak betetzetik mendekotasun egoeran dauden pertsona oso zaharren eguneroko bizitzako jardura egiteko zaintza-beharrizanak betetzera igaro da. Erabiltzaileen %71 emakumeak dira eta %52 80 urtetik gorakoak.

Bizkaian, Etxerik Etxeko Laguntza Zerbitzua udalek kudeatzen dute, 2001eko erakunde arteko akordioa sinatu eta, gero, Eusko Jaurlaritzak 11/2001 Dekretua promulgatu zuenetik. 2005aren amaieran, estaldura %4,36koa zen, 65 urteko eta hortik gorako biztanleentzat (adineko 9.363 erabiltzaile), eta Estatuko batez bestekoa baino handiagoa izan zen. 2004an estaldura %4,17koa izan zen (8.962 erabiltzaile). Modu osagarrian, zerbitzu honetan estaldura eta laguntzako ordutegi-trinkotasuna bateratzeko neurritzat, asterako laguntza-

ren ordu kopuruaren datua eskaintzen da, 65 urteko edo hortik gorako 1.000 pertsonako. Erabiltzaileek Bizkaiko Lurralde Historikoan duten banaketa amaierako laburpen-taulan adierazita dago.

	65+ pertsonak	ELZren erabiltzaileak	%	Orduak/1000 pertsonako
ELZ	214.879	9.363	%4,36	100,98

ELZk Bizkaian duen estaldura - 2005. BFA - EUDEL ikerketa.

2.2.3.3. Telelaguntza

Bizkaian, 2005aren amaieran, 6.089 adineko pertsonari eman zitzaizen laguntza, hau da, biztanleria horren %2,83k izan zuten estaldura; hain zuzen ere, bakarrik bizi diren adineko pertsona guztien %12k jaso zuten laguntza hori. Ehuneko hori Estatukoaren batez bestekoa baino handiagoa da. Bizkaiko erabiltzaileek eskualdeko duten banaketa amaierako laburpen-koadroan jasota dago.

Telelaguntza Bizkaiko Foru Aldundiak kudeaturiko eta finantzaturiko zerbitzua da, eta Lurralde Historikoko udalei eskuordetuta dago. Erabiltzaile kopuruak gorakada handia izan du azken urteotan, hurrengo taulan ikusten denez. 2005etik, telelaguntza zerbitzuak lehengo telelarma zerbitzua ordeztu du.

Erabiltzaileak	2001	2002	2003	2004	2005
Telelaguntza	1.944	2.534	3.773	5.266	6.089

2.2.3.4. Eguneko zentroak

Baliabide hau gerontologiako zentro terapeutikoa da eta laguntza ematen dio familiari; anbulatorioaren bidez, osoko laguntza espezializatua ematen dio mendekotasuna duen adineko pertsonari.

Gaur egun, 2005aren amaieran, Bizkaian 1.232 plaza daude eguneko zentroetan, %0,57ko estaldurarekin, eta horiek amaierako taulan adierazitako eskualde-banaketa dute. Gizarte zerbitzuetako profesionalek gomendaturiko baliabidea da, baina jendeak orokorrean ez du bertara jotzen, segurutik ezagutzen ez duelako eta behar besteko informaziorik ez duelako. Hala eta guztiz ere, azken urteotan gizarte eskariak eta Bizkaiko Foru Aldundiak zerbitzu horretan lagundutako pertsona kopuruak gora egin du, baita plaza erabilgarrien kopuruak ere.

Eguneko zentroa	2001	2002	2003	2004	2005
DFBAri egindako eskab.	271	429	540	540	564
DFBAk lagundutako perts.	96	342	609	749	879
Plazak	591	701	1.067	1.154	1.232

Baliabide hori garatzeko aurreikuspenak, batik bat, ekimen publikotik datoz eta 2008an 1.995 plazako zifrara iristeko itxaropena dago; horrenbestez, 65 urtetik gorako 100 pertsonako plaza batetik hurbileko estaldura egongo da.

2.2.3.5. Egoitza zerbitzuak

Egoitzakopuzen estatu-estaldura %3,78koa da, 65 urte edo gehiago duten biztanleei dagokionez. Bizkaian, 2005aren amaieran, egoitzako gizarte zerbitzuetan 8.642 plaza zeuden eta horrek 4,02 oheko estaldura adierazten du, Bizkaiko 65 urteko edo hortik gorako 100 biztanleko. Eskualdekako banaketa, berriz, amaierako taulan adierazita dago; bertan ikusten denez, estaldura hori oso aldagarria da Bizkaiko eskualde batetik bestera. Plazarik gehien-gehienak egoitzetan daude (7.647), 926 plaza etxebizitza komunitarioetan daude eta 69 babespeko apartamentuetan (%0,46). Establezimenduak honako hauek dira: 124 egoitza, 85 etxebizitza komunitario eta babespeko 2 apartamentu-multzo. Bizkaiko egoitza plazen kopuruak hazkunde handia izan du azken urteotan.

Egoitza	2001	2002	2003	2004	2005
Plazak	5.536	6.108	7.423	7.766	8.642

Gainera, 2008rako Bizkaiko egoitzamultzoak hazkunde handia izango duela dago aurreikusita, eta horrela, 12.200 plaza baino gehiago egongo dira (%5,67ko estaldura, 65 urteko edo hortik gorako biztanleriari dagokionez), bi jarduketaren eremuren funtzionamenduaren eraginez:

Egoitza	2001	2002	2003	2004	2005
DFBAri egindako esk.	1.275	1.394	1.629	1.894	1.931
Erabiltzaileak	2.459	3.262	3.896	4.096	4.027
Pertsonak 31.12n	2.054	2.682	3.100	3.290	3.722

- Bizkaiko Foru Aldundiko gizarte azpiegituren plana, horren eraginez 1.300 egoitza-plaza sortuko baitira urte horretarako.
- Ekimen pribatuak sortuko dituen 2.300 plazak, eta horietatik 860 babespeko apartamentu-multzoetan izango dira.


Egoitzen erabiltzaileak mendekotasun egoeran dauden pertsonak izaten dira, baina gaitasun funtzionala ondo duten pertsonen ematen zaie laguntza. Batez besteko adina 80 urtetik gorakoa da eta narriadura kognitiboei loturiko gaitasunak dituztenen kopurua gero eta handiagoa da (%50etik gorakoa), hortaz, zaintza eta laguntza gero eta espezializatuagoak eta kalitate handikoak eskaini behar dira.

Estatuan, plaza guztien %76 pribatuak dira eta erabiltzaileak oso-osorik finantzaturiko zerbitzuak eskaintzen dituzte (%58) edo hitzarmen-araubideko zerbitzuak eskaintzen dituzte (%18), sektore publikoaren eta erabiltzaileen partaidetzaren arteko ekarpenekin finantzaturak. Gainerako plazak (%24) publikoak eta finantziario mistoak dira. Bizkaian, titulartasun publikoa eta pribatua duten plazen kopurua Estatukoaren antzekoa da (baina %23arekin irabazi asmorik gabeko fundazioetan) eta fondo publikoekin (forukoak eta udal-errietakoak) finantzaturiko plazak guztizkoaren %52ra iristen dira. Nolanahi ere, egoitzen eskaintzaren ezaugarri nagusia sektore pribatuaren indar handia da, eta nagusitasun horrek agerian jartzen du adineko pertsonen eta horien familiek egin behar duten ahalegin ekonomiko itzela.

Azken urteotan, plazen eskariak hazkunde handia izan du, baita Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jasotzen duen adineko pertsona kopuruak ere. Halaber, 2005aren amaieran egoitzen foru-sarearekin sortu da eta hori Aldundiko zentroek osatzen dute; sare hori handitu egin da, egoitza pribatuetan plazak hitzartuta eta udal titulartasuneko egoitzekin hitzarmenak eginda, abenduaren 16ko 11/2005 Foru Arauan ezarritakoaren arabera (mendekotasuna duten adineko pertsonentzako egoitzen zerbitzu publikoari buruzko araua).

GIZARTE ZERBITZUEK BIZKAIAN DUTEN ESTALDURA (2005)									
Eskualdea / Azpieskualdea	ELZ (%)			Telelaguntza (%)		Eguneko zentroa (%)		Egoitza (%)	
1. Bilbo	6.537	8,70	90,58	2.146	2,86	357	0,48	2.955	3,93
1.1. Bilbo	6.537	8,70	90,58	2.146	2,86	357	0,48	2.955	3,93
2. Ezkerraldea - Enkarterri	1.199	2,06	100,01	2.308	3,94	441	0,75	2.103	3,59
2.1. Ezkerraldea	439	1,75	80,46	944	3,77	256	1,02	725	2,89
2.2. Barakaldo	316	1,58	97,49	1.036	5,18	80	0,40	527	2,63
2.3. Meatzaldea	301	4,55	174,04	195	2,83	60	0,91	374	5,66
2.4. Enkarterri	143	2,09	107,56	133	1,94	45	0,66	477	6,96
3. Ibaizabal - Nerbioi	727	2,07	121,60	615	1,75	204	0,58	1.008	2,87
3.1. Durangoaldea	190	1,62	115,27	130	1,10	80	0,68	305	2,60
3.2. Arratia	109	2,07	101,46	74	1,41	51	0,97	328	6,24
3.3. Basauri-Etxebarri-Galdakao	322	2,34	128,75	293	2,13	48	0,35	270	1,96
3.4. Nerbioi	106	2,41	136,94	118	2,68	25	0,57	105	2,39
4. Busturia - Uribe	900	1,96	105,87	1.021	2,22	230	0,50	2.576	5,60
4.1. Uribe	487	2,02	114,57	671	2,74	150	0,62	1.393	5,77
4.2. Busturialdea	156	1,71	85,21	146	1,59	37	0,41	448	4,91
4.3. Mungialde-Txorierrri	119	1,71	93,74	133	1,90	31	0,44	536	7,69
4.4. Lea-Artibai	138	2,39	135,17	71	1,22	12	0,21	199	3,45
BIZKAIA GUZTIRA	9.363	4,36	100,98	6.089	2,83	1.232	0,57	8.642	4,02

Egoitzak eta Eguneko Zentroak. BFAren datuak. ELZren estaldura Bizkaian - 2005. DFBA - EUDEL ikerketa.



III. kapitulua

Jarrera Estrategikoa

Hurrengo lerro hauetan, Bizkaiko Foru Aldundiak agerian jarri nahi du adineko pertsonentzako gizarte zerbitzuen arloan bereganatu nahi duen eginkizuna, baita plan hau bete ondoren izan nahi duena ere. Betiere, indarreko araudia eta bere eginkizuna oinarritzen duten printzipioak nahiz balioak betez.

EGINKIZUNA

Gizarte Ekintza Sailaren eginkizuna Bizkaiko Foru Aldundiaren erantzukizun publikoa modu iraunkorrean garatzea da, adineko pertsonen gizarte laguntzan. Eginkizun hori, berriz, beharizanen azterketan eta horiei eman beharreko erantzun espezializatuan oinarrituriko sistema planifikatuaren bidez gauzatu behar da, jarduketa arlo honetan eragileak diren gainerako herri administrazioekin eta erakunde pribatu laguntzaileekin koordinazioan, hiritarren partaidetza erraztuz.

GERONTOLOGIA PLANA OINARRITZEN DUTEN PRINTZIPIOAK (BALIOAK)

Gerontologia Plan hau Eusko Jaurlaritzaren gizarte zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legean ezarritako printzipioen arabera arautzen da orokorrean.

1. Bizkaiko Foru Aldundiak adineko pertsonentzako zerbitzuak hornitzeko erantzukizuna dauka, eta erantzukizun horrek bermatu egiten du hiritarrek zerbitzu horiek erabiltzeko duten eskubidea; horretarako, zerbitzuon sustapena eta funtzionamendu eraginkorra ahalbidetzen duten finantza nahiz giza baliabideak eta baliabide teknikoak bideratzen ditu, beharizanik premiazkoenen estaldurari lehenetasuna emanez. Erantzukizun hori, berriz, beharizanak aztertuta eta baliabide erabilgarrien arabera garatu beharreko jarduketak nahiz eskaini beharreko zerbitzuak zehaztuz gauzatzen da, baliabide erabilgarriak aintzat hartuta, sistemaren hobekuntza eta berorren iraunkortasun ekonomikoa sustatuz. Hori guztia foru eskumeneren arloaren barruan.
2. Hiritar guztiek adineko pertsonentzako gizarte zerbitzuak lortzeko aukera dute, inolako diskriminazio barik, baina Gerontologia planean ezarritako jarduketetan beharrezko genero-ikuspegia ezarrita, izan ere, adineko pertsonarik gehienak, batez ere mendekotasuna dutenak, eta horien zaintzaileak emakumeak dira.
3. Gainerako herri administrazioekiko lankidetzeta eta koordinazioa behar da, gizarte eta osasun zerbitzuen arloan, adineko pertsonentzat, eta hitzarturiko ekimen pribatuarekiko lankidetzeta eta koordinazioa ere bai, gizarte beharizanei eskariaren arabera erantzuna emateko.
4. Hiritarrek partaidetza demokratikoa izango dute Gerontologia Planean ezarritako jarduketa eremu guztietan, bai erabiltzailetzat (bermatu eta ukaezineko eskubidetzat hartu behar da, erabili beharreko baliabide mota hautatzean eta eraginpeko esku-hartze programen zehaztapenean), banaka nahiz taldeka, bai elkartasunezko erakundeen bitartez (hirugarren sektorea edo irabazi asmorik gabea), ekintza komunitarioa eta boluntarioen ekintzak garatzeko.
5. Erabiltzaile bakoitzaren beharizanei kalitateko eta osoko erantzun dibertsifikatua eta malgua ematen dien laguntza pertsonalizatua eskainiko da, osasun eta ongizate maila ahalik eta handiena lortzeko, bizi-itzaropena ez ezik ezintasunik gabeko bizi-itzaropena ere luzatzen duten programak eta autonomia maila handiagoa bermatzen duten programak erabiliz, errehabilitazioaren ikuspegian oinarritu eta itzulgarritasun nahiz suspertze irizpidea sustatuz, lagundutako pertsonen edozein alderditan eta aukeratan, horiek hondakinezkoak izan arren.
6. Adineko pertsonaren bizitzaren arlo guztietako normalizaziora eta inguru pertsonalean, familian, gizartean nahiz kulturean (ikuspegi komunitarioa) integratzera orientaturiko laguntza izango da, sare informalearen laguntza sustatzeko eta, hurbiltasun irizpidean oinarrituta, landa inguruaren berezitasunak kontuan hartzeko.

7. Trebakuntza tekniko egokiko pertsonen egindako laguntza profesionalizatua, gizarte boluntarioen lanaren kalterik gabe, onartu egiten baita horien balioa.

IKUSPEGIA

Adineko pertsonen laguntzarako gizarte zerbitzuen erantzukizun publikoko sistema eratzea (batez ere, mendekotasuna dutenentzat eta horien zaintzaileentzat), pertsona horien beharrianak eta eskariak ezagututa, zorro zabalarekin eta es-taldura egokiarekin programetan, zerbitzuetan eta prestazio ekonomikoetan, gainerako gizarte eta osasun zerbitzuekin lankidetzan, euren eskubideak bermatzeko eta berrikuntza nahiz iraunkortasuna sustatzeko, gizarte eta ekonomia ikuspegian eus-karrituz.



IV. kapitulua

Gerontologia Planaren Helburuak

GERONTOLOGIA PLANAREN HELBURUAK

1. Adineko pertsonen eskubideak babestea, horientzako zerbitzuen sustapenean foru erantzukizun publikoa bultzatuz eta zerbitzuen izaera unibertsalean sakonduz.
2. Adineko pertsonen gizarte zerbitzuen arloan dituzten beharrianak eta eskariak hobeto ezagutzea, horiei erantzun egokia emateko, gizarte politiken eta gizarte esku-hartzearen berrikuntzan oinarrituz.
3. Adineko pertsonen euren beharrianen eta eskarien araberako laguntza ematea, programen, zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen (zerbitzuak, orokorrean) zorro handia erabiliz.
4. Gizarte eta osasun sistema guztien arteko koordinazioa sustatzea, laguntzaren jarratasuna bermatzen duen eredu egonkorra garatzeko, bai gizarte zerbitzuen sistemaren barruan eta bai osasun sistemaren barruan.
5. Bizkaiko Gerontologia Planaren jarraipena egiteko sistema ezartzea eta Gizarte Ekintza Sailak egindako lan-sistemak egokitzea, plan hori hobeto betetzeko.

GERONTOLOGIA PLANAREN HELBURUEN ETA EKINTZA LERROEN AZALPENA

1. Adineko pertsonen eskubideak babestea, horientzako zerbitzuen sustapenean foru erantzukizun publikoa bultzatuz eta zerbitzuen izaera unibertsalean sakonduz

a) EAEko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak arautu dituen Dekretutik sorturiko jarraibideen ezarkuntza sustatzea, adineko pertsonen arloan.

1. a. 1. Jarraibideak adineko pertsonen laguntzarako foru sarearen barruko zerbitzuetan ezarri.

1. a. 2. Jarraibideak udal titulartasuneko gizarte zerbitzuetan duten ezarkuntza ikuskatu.

b) Mendekotasuna duten adineko pertsonen eta horien zaintzaile nagusien gizarte zerbitzuak edo prestazioak arautzeko behar den legezko arautegia ezartzea.

1. b. 1. Bizkaiko Batzar Nagusien arloan, Foru Aldundiak adineko pertsonen laguntzan duen jarduketa babesten duten foru arauen garapena sustatu.

- Mendekotasuna izan eta etxean gelditzen diren adineko pertsonen eta horien zaintzaileen laguntzari buruzko foru arau bat proposatu.

1. b. 2. Foru Aldundiak adineko pertsonen inguruko eskumen arloan duen jarduketa arautzen duten foru dekretuak garatu.

- Foru zerbitzu publikoak eskuratzeko irizpideak zehaztu, adineko pertsonen mendekotasun egoerari lehentasuna emanaz (EAEkoaren edo Estatukoaren antzeko sistematzat baloratuta) eta beste faktore batzuk apurka-apurka minimizatuz.
- Egoitza egonaldiak (iraunkorra eta aldi baterakoa), eguneko zentroetako egonaldiak eta abar arautzen dituzten foru dekretuak gaurkotu.
- Mendekotasuna izan eta etxean gelditzen diren adineko pertsonen laguntzarako gizarte zerbitzuak arautzen dituzten foru dekretuak garatu.

- Foru Aldundiak arauturiko gizarte zerbitzuen prezio publikoei buruzko foru dekretuak garatu.

- Bizkaiko Lurralde Historikoan foru administrazio publikoaren arlo desberdinekiko loturak ezar ditzaketen gizarte zerbitzuek edo zentroek homologaturiko edo egiaz-taturiko baldintzak "garatzen" dituzten foru dekretuak garatu.

1. b. 3. EAEko adineko pertsonentzako gizarte ekintzaren arloko araudia eta planifikazioa sustatu.

- Eusko Jaurlaritzak adineko pertsonentzako gizarte zerbitzuei buruzko legeriaren sustapenerako eta partaidetzarako ezarritako foroak erabili.
- Euskadiko Gerontologia Plan berria sustatu.

c) Erabakiak hartzeko askatasunik ez duten adineko pertsonen babes juridikoan eta ekonomikoan laguntzea.

1. c. 1. Lege aholkularitzako zerbitzua eman, kanpoko eta doakoa, izaera bermatzaile-duna, mendekotasuna duten adineko pertsonen legezko ezintasunerako tramiteetan, berori justifikatzen duen egoerara edo unera iritsitakoan, Bizkaiko Babes Institutuaren bitartez, mendekotasuna duten adineko ezein pertsona legezko berme barik ez gelditzeko.

1. c. 2. Era guztietako gehiegikeria ekonomikoan eta tratu txarren arriskua murrizten duten neurriak hartu.

- Mendekotasuna duten adineko pertsonen laguntzan diharduten profesional guztiei heziketa berezia eman, gehiegikeriak, arduragabekeriak edo tratu txarrak detektatzeko.

1. c. 3. Fiskaltzarekiko eta Botere Judizialarekiko harremanak sustatu.

d) Adineko pertsonen eskubideen eta betebeharren zabalkundea egitea.

1. d. 1. Adineko pertsonen zuzendutako informazio kanpainak egin, gizartean euren bizi baldintzen hobekuntzan eta euren interesen defentsan parte hartzeko ezarritako dauden bideei buruz, euren iradokizunak, ekimenak eta erreklamazioak bideratu ahal izateko.

1. d. 2. "Adineko Pertsonen aldeko Manifestua" zabaldu, bertan adineko pertsonen eskubiak eta printzipioak azaltzeko, eta gomendio eta iradokizun idatziak egin, esku hartu behar duten eragile guztien jarraibide izateko eta, horrela, gizartean jarrera berria bizkorrago sortzeko.

e) Adineko pertsonen eta horien gizarte laguntzan inplikaturiko beste eragile batzuen partaidetzarako bideak ezartzea.

1. e. 1. Adineko Pertsonen Batzorde zabaldua, irekia, partaidetzakoa, orekatua eta eragilea eratu, horrek halako pertsonengan eragina duten politiken planteamenduan eta jarraipenean izan behar duen eginkizun garrantzitsua onartuz.

- Eginkizun horretan laguntzen duten batzorde bereziak sortu, adin talde honi loturiko politikei dagokienez.
- Batzorde honen barruan, Gerontologia Planaren ikerketa eta ebaluazio iraunkorrean diharduen talde berezia sortu.
- Batzordeari beharrezko laguntza teknikoa eta logistikoa eman, bere funtzioak garatu ahal izateko.

1. e. 2. Adineko pertsonen tokiko eta eskualdeko batzordeen sorrera sustatu, EUDEL-en eta udalen inplikazioarekin eta partaidetzarekin.

- Batzorde horiek martxan jartzeko oinarriko jarraibideak diseinatu.
- Batzorde horiei laguntza eta aholkularitza juridikoa eman, jarduketara bereziko udal planak abiatzeko, garapen komunitarioko toki planekin koordinatuz.

2. Adineko pertsonen gizarte zerbitzuen arloan dituzten beharrianak eta eskariak hobeto ezagutzea, horiei erantzun egokia emateko, gizarte politiken eta gizarte esku-hartzearen berrikuntzan oinarrituz

a) Adineko pertsonen beharriari eta eskariei buruzko gizarte ikerketak egitea (baita adineko pertsonen zaintzaileei buruzkoak ere).

2. a. 1. Foru Aldundiak, Bizkaiko Lurralde Historiko osoan, adineko pertsonen eta horien zaintzaileen beharriari eta eskariei buruzko ikerketak egin.

2. a. 2. Toki edo lurralde mailan, adineko pertsonen beharriari nahiz eskariei eta horien

gaineko ezagupen ona zein iraunkorra edukitzeko estrategia egokiei buruzko ikerketak sustatu.

b) Bizkaiko gizarte zerbitzuen sare osoan adierazle bateratuak dituen informazio sistema ezartzea (sistema homoginoa, erabiltzen ditugun beste batzuei dagokienez), gizarte zerbitzuetarako eta prestazioetarako ezarritako estaldura mailak ondo ezagutzeko.

2. b. 1. Gizarte Ekintza Sailak garaturiko edo neurri batean finantzaturiko zerbitzuei buruzko adierazleak dituen aginte-koadroa sortu, inplikaturiko toki administrazioentzako sarbidearekin.

2. b. 2. Toki erakundeek garaturiko jarduketak jasotzen dituen lurralde informazioko sistema sustatu.

c) Adineko pertsonentzako gizarte zerbitzuek jarduera ekonomikotzat duten eragina jakitera bideraturiko ikerketak egitea.

2. c. 1. Adineko pertsonentzako zerbitzuen gastu publikoari eta pribatuari buruzko txostenak idatzi.

2. c. 2. Gastu horiek herri administrazioei dakartzkien itzultze ekonomikoak ikertu.

d) Bizkaiko Lurralde Historikoan Adineko Pertsonen Behatokia sortzea, EAEn, Estatuan eta EBn dauden bete behatoki batzuekin erlazionatuz.

e) "Ezagupenaren klusterra" sortzea, adineko pertsonentzako gizarte politikei buruz.

f) Ezagupena kudeatzeko eta aplikatzeko sistema ezartzea, adineko pertsonen gizarte ekintzan jardun onak hedatzeko.

2. f. 1. Lanbide jardun onetarantz orientaturiko mintegi iraunkorra garatu, erakunde laguntzaileen eta Gizarte Ekintza Sailaren (berorren erakunde autonomoekin) arteko sareko lana sustatzeko eta, horrela, alderdi guztien esperientzia nahiz ekimena aprobetxatzeko.

2. f. 2. Beste errealitate batzuetan oinarrituz, "benchmarking" ikerketak egin, adineko pertsonen laguntzan geure gizarte zerbitzuak eta prestazioak garatzeko.

2. f. 3. Ikerketa, garapen eta berrikuntza (I+G+B) ekintzen garapena sustatu.

2. f. 4. Gizarte Ekintza Sailaren eta bertako erakunde autonomoen produkzio zientifikoa eta teknikoa sustatu.

2. f. 5. Adineko pertsonetikiko gizarte ekintzari buruzko Estatuko eta Europako foru guztietan parte hartu.

g) **Gizarte Laguntzako Foru Institutuaren laguntza jarduketa espezializatzea, adineko pertsonen gizarte zerbitzuen arloan erreferentziakoak diren zerbitzuak ematerantz, berrikuntza eta hobekuntza iraunkorrean oinarrituz.**

3. Adineko pertsonen euren beharrezan eta eskarien arabera laguntza ematea, programen, zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen (zerbitzuak, orokorrean) zorro handia erabiliz

a) Jasotako zerbitzuak ondo zehaztuta dituen katalogoa lantzea.

b) Bizkaiko Lurralde Historikoan adineko pertsonen eta horien zaintzaileen beharrezan eta eskarien babes egokia lortzea, emandako zerbitzuen hurbiltasuna sustatuz, eskualde banaketa egokia eginda.

3. b. 1. BIZI KALITATEA ETA ZAHARTZE AKTIBOA.

- Adineko pertsonen egoera ekonomikoa hobetzeko neurriak sustatu.
 - Estatuan eta EAEn eskubide subjektibotzat ezarritako laguntza ekonomikoen eta beste dirulaguntza batzuen hobekuntzak sustatu.
 - Foru Aldundiak eskubide subjektibotzat ezarritako laguntza ekonomikoen lorpena indartzeko ematen dituen dirulaguntzak mantendu.
Foru Aldundiaren dirulaguntzen zenbaitekoak gaurkotu, bakoitzerako ezarritako irizpide finalistak aintzat hartuta.
- Adineko pertsonen baliabide komunitarioak erabiltzea sustatu, horiek lortzeko irizpideak malgutuz nahiz egokituz eta adineko pertsonen baliabideok erabiltzeko programak zein jarduerak diseinatu.
 - Lurralde mailan, hezkuntzaren nahiz kulturaren, teknologia berrien eta abarren arloko programak sustatu.
 - Toki mailan, adineko pertsonentzako jarduketa planak sustatu, garapen komunitarioko planetan integratuta.

- Lurralde mailan, adineko pertsonentzako heziketa, kultura eta aisialdi programa bereziak sustatu.

- Museo, kultura zirkuitu, kirol ikuskizun, azoka, ikuskizun eta abarrerako bisitaldiak sustatu

Museoak Barrutik programan sartzen den museo kopurua handitu.

Museoak Barrutik programan parte hartzen duen adineko pertsona kopurua %10ean handitu.

Kirol ikuskizun, Feria Nagusi eta abarrek partaidetza eskaintza mantendu

- Adineko pertsonentzako "Adineko" bidaiak sustatu eta mendekotasun arinak dituzten pertsonen bidaiotan parte hartzeko aukera eman, egokituriko zentroekiko hitzarmenak ezarriz eta boluntarioen esku-hartzea sustatuz.

Adineko bidaiak-programa mantendu.

Ezintasun arinak dituzten pertsonen bidaiak-programan parte hartzeko aukera eman.

- Kultura lehiaketak eta astialdiko jarduerak sustatu.

Adineko pertsonentzako lehiaketak mantendu.

- Adineko pertsonentzako kirol lehiaketak sustatu.

Adineko pertsonentzako "olinpiaden" proiektu aurrendaria garatu.

- "Adineko pertsonentzako unibertsitatea", kultura zabaltzeko ikastaroak eta abar sustatu.

"Adineko pertsonentzako unibertsitatearen" proiektu aurrendaria garatu.

- Boluntario-lana egiten duten adineko pertsonen belaunaldien arteko programak eta gizarte intereseko jarduerak sustatu.

- Adineko pertsonen belaunaldi arteko programak edo gizarte boluntariotza sustatu.

Gizarte intereseko jarduerak garatzen dituzten adineko pertsonen elkarten boluntariotza jardueretarako dirulaguntzen aurrekontu partida handitu.

- Boluntariotza Agentzia (Bolunta) **sustatu**, adineko pertsonen boluntariotza garatzeko.
- "Elkargune" Elkarten Zentroa **erabili**, gizarte intereseko jarduerak borondatez garatzen dituzten adineko pertsonen elkarten azpiegiturak zuzkitzeko.
- Adineko pertsonentzako gizarte zentroyen berrikuntza **sustatu**, zentro irekiak, balio anitzekoak eta autokudeatuak izateko.
 - Autokudeaketa irizpideetan oinarriturik zentro-eredua **sustatu**.
 - Adineko pertsonen zentroyen nahiz elkarten mantenamendua eta jardueren garapena **sustatu**, dirulaguntzen deialdietan bizi-kalitateko eta zahartzate aktiboko baldintzak sartuta.

Adineko pertsonentzako gizarte zentroetako jarduerak garatzeko dirulaguntzetarako aurrekontu partida mantendu.
 - Adineko pertsonentzako gizarte zentroyen sareko lana **sustatu**.

Adineko pertsonentzako gizarte zentroyen sareko lana sustatzen duten irabazi asmorik gabeko erakundeekiko lankidetzak hitzarmenak ezarri.
- Osasun Sailarekin lankidetzak **garatu**, oinarritzako laguntzako osasun prebentzioko eta sustapeneko programetan.
 - Osasun Sailarekin halako programetan lankidetzan jarduteko proiektu aurrendaria **garatu**.
 - Osasuna urtero azpieskualdeka **sustatzeko** eta horren prebentziorako jarduketak **garatu** (esperientzia aurrendariaren ostean).

3. b. 2. ETXEAN GELDITZEN DEN (MENDEKOTASUNA)

ADINEKO PERTSONAREN LAGUNTZA.

- Laguntza teknikoak eta barne egokitzapenerako laguntzak **ezarri**, mendekotasuna duten adineko pertsonen etxebizitzetarako, ezintasuna duten pertsonen laguntzarako foru zerbitzuarekin lankidetzan.
 - Laguntza teknikoen katalogo orokorra **garatu**.
 - Etxebizitzaren egokitzapenari eta laguntza teknikoari buruzko informazio, aholkularitza eta ebaluazio zentroa **sortu**, eta horren erakusketa iraunkorra eta dokumentazio zerbitzua eskaini.
- Laguntza teknikoetarako eta etxebizitzaren egokitzapenerako prestazio ekonomikoak **sustatu**.

Ezintasuna duten adineko pertsonen laguntza teknikoak edo ekonomikoak emateko aurrekontu partida handitu, euren etxebizitza barrua egokitzeko, II. eranskinean ezarritakoaren arabera.

Laguntza teknikoak dituzten edo horiek lortzeko nahiz etxebizitzak barrutik egokitzeko dirulaguntzak jasotzen dituzten adineko pertsona ezinduen kopurua urtero %10ean handitu.
- Laguntza teknikoetarako mailegu zerbitzua **sortzea**.
- Eraikinetako elementu komunen gaineko jarduketak **sustatu**, ezintasuna duten adineko pertsonen etxebizitzarako irisgarritasuna hobetzeko, eta euren bizilekuak ordeztzeko neurriak hartu, irisgarritasuna eskaintzen dien etxebizitza lortzeko.
 - Toki mailan, mugikortasun arazoak dituzten adineko pertsonen zentsuaren lanketa **sustatu**, oztopo arkitektonikoen eraginez etxe barruan sartuta egon daitezkeen pertsonen dagokiez, eta arazo hori konpontzeko plan bereziak diseinatu eta aplikatu.
- Etxerik etxeko telelaguntza zerbitzuan **sakondu**.
 - Zerbitzuaren **babesa** zabaldu.

Telelaguntzako aparatuak etxean instalatuta dituzten adineko pertsonen kopurua apurka-apurka handitu, harik eta zerbitzuaren estaldura honako honen antzekoa izan arte: "bakarrik bizi diren 80 urteko pertsona kopurua".
 - Gizarte beharrezane, agenden eraketari nahiz kudeaketari eta gizarte baliabideei buruzko informazioari loturiko larrialdi, arreta eta jarraipen egoeren laguntza **finkatu**.
 - Telelaguntza zerbitzua **hobetu**, etxebizitzan segurtasun sistemak jarrita (suteen detekzioa, bidegabe sartzea, etab.) eta zerbitzua etxetik kanpo hedatuta.

- Bakarrik bizi diren adineko pertsonen etxebizitzetan telefonoen instalazioa sustatu, AES deritzona emanaz.
 - Adineko pertsonentzako etxerik etxeko laguntza zerbitzuak sustatu.
 - Toki eta foru administrazioekiko koordinazioa garatu, zerbitzuari loturiko alderdi guztiei dagokienez.
Administrazioek ELZri buruz duten lankidetzeta eta koordinazio sistemari buruzko hausnarketa edota akordioa.
 - Zerbitzuaren estaldura eta trinkotasuna handitu.
*Estaldura apurka-apurka handitu, %5era iritsi arte (65 urteko edo hortik gorako biztanleriari dagokionez).
ELZren ordutegia trinkotu, 65 urteko edo hortik gorako 1.000 biztanleko asteroko 260 orduko estaldura orokorra lortu arte.
Lurralde Historikoan estaldura eta trinkotasun desorekak arindu.*
 - Narriadura kognitiboa duten adineko pertsonen laguntza psikosozialeko programak sustatu.
Narriadura kognitiboa duten adineko pertsonen laguntzeko programen dirulaguntzetarako aurrekontu partida handitu.
 - Komunitarioa eta espezializatua izatearen eraginez hautaturiko eguneko zentroa eta gerontologia zerbitzua sustatu.
 - Zerbitzuaren estaldura handitu, eguneko zentroetako plazen eskaintzan eskualde eta azpieskualde mailako oreka ezarri, hori eskariaren jatorriko zonen arabera izateko.
*Eguneko zentroetako plaza kopurua apur-apurka handitu, harik eta %1era iritsi arte, 65 urteko edo hortik gorako biztanleriari dagokionez.
Gizarte Azpiegituren III. Plana (III. eranskina).
Udal titulartasunekoak eta titulartasun pribatukoak (irabazi asmorik gabeko elkarteak) diren eguneko zentroak sortzeko edo aldatzeko dirulaguntzetarako aurrekontu partida mantentzea.*
 - Eguneko zentroen funtzionamendu arauak adineko pertsonen eta horien zaintzaileen eskari berrietara egokitu.
 - Asteburu etako laguntza zerbitzua garatu.
Eguneko zentroetan asteburu etako laguntza zerbitzurako plaza kopuru jakina sortzea, harik eta %0,2ra iritsi arte, 65 urteko edo hortik gorako biztanleriari dagokionez.
 - Esperientzia aurrendarizatuz, Alzheimerra edo beste dementzia batzuk dituzten pertsonentzako gaueko laguntza zentroa abiatu, gaixotasunaren barruan asaldura prozesuak eta jokatibidaren beste arazo batzuk dituztenei laguntza eskaintzeko.
3. b. 3. LAGUNTZA SARE INFORMALERAKO SUSTAPENA.
- Mendekotasuna duten adineko pertsonen familiekiko esku-hartze programa ezarri.
 - Zainduz programa sustatu, oinarriko gizarte zerbitzuei protagonismoa emanaz, horiek Lurralde osoan hedatzeko.
*Zainduz programara atxikitako toki erakundeekin (udalak edo mankomunitateak) kopurua apurka-apurka handitu, 2010erako Lurralde osoan hedatuta egoteko.
Toki erakundeekin Zainduz programa garatzeko ezarritako hitzarmenak finantzatzeko aurrekontu partida handitu (II. eranskinaren arabera).*
 - Zaintzaileen edo familien deskargarako, laguntzarako eta orientaziorako telefonoa sortu, baita web orri elkarreragilea ere, biok ere foru erantzukizunarekin.
 - Familiako kideen baterako erantzukizuna sustatu, zaintzak emateko orduan, gizonen protagonismo handiagoa bilatuz, kanpainen, ikastaroen eta jardueren bitartez, hezkuntza mailatik hasita, kultura estereotipoen aurka borrokatzeko.
 - Zaintzaileen laguntzan boluntarioen eginkizuna sustatu, horretan diharduten elkarteentzako eta zaintzaile informalei laguntza nahiz arreta programa bereziak eskaintzen dizkieten elkarteentzako dirulaguntza-politikei

lehenetasuna emanaz, talde horien eta oinarrizko gizarte zerbitzuen arteko toki mailako koordinazioa hobetzen saiatuz.

Zaintzaileen laguntzan nahiz arretan eta horien borondatezko laguntzan diharduten eraginpeko elkarteetan jardueretarako dirulaguntzei buruzko aurrekontu-partida handitu, II. eranskinean ezarritakoaren arabera.

- Mendekotasuna duten adineko pertsonentzako edo horien zaintzaileentzako dirulaguntzak ezarri.

Mendekotasuna duten adineko pertsonentzako banakako dirulaguntzak emateko aurrekontu partida handitu, II. eranskinean ezarritakoaren arabera.

- Familiako eta laneko bitzita adiskidetzeko neurriak sustatu, mendekotasuna duten adineko pertsonen laguntza trinkoa ematen dieten familiakoentzat, horiek soldatapeko lana dutenean, gizonen inplikazioari arreta berezia jarri; halaber, Gizarte Segurantzaren daudenekiko neurri osagarriak bultzatu, mendekotasuna duten adineko pertsonen zaintzaileen babeserako.
- Familientzako programa aringarriak sustatu.

- Egoitzan aldi batean egoteko eskaintza handitu.

Egoitzetako aldi baterako egonaldietako laguntza-egunen kopurua %25ean handitzea urtean (erabiltzaileen hazkundera eta pertsona bakoitzeko laguntza-egunak batuta).

- Mendekotasuna duten pertsonentzako eta horien zaintzaileentzako oporraldi programa sustatu.

Mendekotasuna duten adineko pertsonentzako eta horien zaintzaileentzako oporraldi-egonaldietarako plaza kopurua %10ean handitzea urtean.

3. b. 4. ETXEAREKIKO AUKERAK.

- Mendekotasuna duten adineko pertsonentzako egoitza zerbitzuak garatu.

- Egoitza egonaldi iraunkorreko zerbitzuaren estaldura handitu, plazen

eskaintzan eskualde eta azpieskualde mailako oreka ezarri, eskariaren jatorriko zonen arabera.

Egoitzako plaza kopurua apurka-apurka handitu, harik eta %4,5era iritsi arte (65 urteko edo hortik gorako biztanleriari dagokionez).

Egoitza zerbitzuaren eraginkortasun bertikala apurka-apurka hobetu; hau da, mendekotasuna duten adineko pertsonen proportzioaren eraginkortasun bertikala hobetu, pertsona autonomoak erakunde-zerbitzutik irteko prozesua erraztuz.

Gizarte Azpiegituren III. Plana (III. eranskina).

Udal titulartasuneko eta titulartasun pribatuko (irabazi asmorik gabeko elkarteak) egoitzak sortzeko edo aldatzeko dirulaguntzetarako aurrekontu-partida mantendu.

- Gizarte eta osasun laguntzako egoitza zerbitzua sortu, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin koordinazioan.

Gizarte eta osasun zentroa sortu (III. Azpiegitura Plana).

Gerontologia zentroetan integraturiko eta eskualde banaketa egokiko hiru gizarte eta osasun unitate sortu.

- Zahartzen ari diren mendekotasuneko pertsonen egoitza laguntza sustatu, Ezinduen Zerbitzuarekiko lankidetzan.

Ezintasuna duten 50 urtetik gorako pertsonentzako plaza kopurua apurka-apurka handitu.

- Familia harrerako programa sustatu, oinarrizko gizarte zerbitzuek programaren kudeaketan duten eginkizuna sustatuz.

- Mendekotasuna duten adineko pertsonen familia harrerako esperientzia aurrendaria gauzatu.

Familia harrerako programan parte hartzen duten adineko pertsonen kopurua urtero %10ean handitu.

Familia harrerako programa finantzatzeko aurrekontu-partida handitu.

- Familia hartzaileen heziketa plana diseinatu eta martxan jarri, batez ere erreferentziako pertsonentzat.

- Egoitzakoak ez diren ostatuak sustatu, euren ohiko etxebizitzan baldintza onargarriekin bizi ezin duten adineko pertsonen egoitzako plaza bat ez den beste aukera bat eskaintzeko (babespeko apartamentuak, etxebizitza komunitarioak eta balio anitzeko landa-zentroak).

Babespeko apartamentuen, etxebizitza komunitarioen eta balio anitzeko landa-zentroyen plaza kopurua apurka-apurka handitu (65 urteko edo hortik gorako biztanleriaren %0,5), baliabide horiek ezinduak ez diren adineko pertsona kopuru handiko lekuetan kokatzeari lehentasuna eman.

Udal titulartasuneko eta titulartasun pribatuko (irabazi asmorik gabeko elkarteak) aukerako ostatuak sortzeko dirulaguntzetarako aurrekontu-partida sortu.

c) Adineko pertsonen gizarte zerbitzuen foru eskaintza publikoa handitzea, euren zerbitzu-zorroan jasotako arlo guztietan, bertako eta kanpoko baliabideak erabiliz.

d) Hiritarrei informazioa emateko plana garatzea, batez ere adineko pertsonen nahiz horien familiei eta gizarte zerbitzuen profesionalen informazioa emateko plana, honako hau jakinarazteko: euren eskura dauden zerbitzuak, kasu bakoitzean bete behar diren baldintzak, baliabideak lortzeko modua eta erreklamazioetarako ezarritako baldintzak.

3. d. 1. Lurralde mailan (Gizarte Ekintza Sailetik), adineko pertsonen artean informazio kanpainak egitea, euren eskura dauden baliabide guztiei (komunitarioak eta espezializatuak) eta eskaintako zerbitzuei buruz; informazioa modu ulergarrian eta eskuragarrian ematea.

- Bizkaiko adineko pertsonentzako "gizarte zerbitzuen gidaliburua" argitaratu.

3. d. 2. Gizarte Ekintza Sailaren Erabiltzaileen Laguntza Zerbitzuak sustatu, hiritarrei adineko pertsonentzako gizarte zerbitzuei buruzko informazioa emateko.

3. d. 3. Erakundearen weba eta komunikazio telematikoa sustatu.

3. d. 4. Gizarte Mintegiak eta Topaketak egin (Topaketa), adineko pertsonentzako foru ekintzari buruz.

3. d. 5. Gizarte Ekintza Sailak, EUDELekin lankidetzan, oinarrizko gizarte zerbitzuetako profesional taldearentzako informazio eta presuntakuntza kanpainak egin, adineko pertsonentzako baliabideak hobeto koordinatu eta aprobetxatu ahal izateko.

3. d. 6. Oinarrizko gizarte zerbitzuetatik, toki mailan, adineko pertsonen artean informazio eta sustapen kanpainak sustatu, maila komunitarioan dauden gizarte zerbitzuei buruz, publikoak eta pribatuak, baita eskaintako zerbitzu sortari buruz ere.

e) Adineko pertsonen laguntzeko maila guztien kalitatea sustatzea, zerbitzu bakoitzerako zehazturiko ereduaren oinarrituz.

3. e. 1. Gizarte Ekintza Sailaren zorroan ezarritako zerbitzuetan laguntza eskaintzeko ereduak zehaztu.

3. e. 2. Foru erantzukizuneko zerbitzuen ebaluazio prozesuak egin, adierazle sistema egoiak erabiliz.

3. e. 3. Gizarte ekintzako koadernoak argitaratu, adineko pertsonen laguntzari buruz.

3. e. 4. Saileko zerbitzuen "jardun onen gidaliburuak" egin.

3. e. 5. Laguntzako banakako planak finkatu (diziplina anitzekoak), adineko pertsonentzako zerbitzuen arlo guztietan, adineko pertsonen partaidetzarekin (zaintzaileen partaidetzarekin ere bai), planak lantzeko eta euren jarraipena egiteko orduan.

3. e. 6. Adineko pertsonentzako gizarte zerbitzuen arloan kalitate prozesuak sustatu.

- Barne Araubideko Araudiaren ereduak garatu, erabiltzaileen antolaketan dauden konpromisoak, interesatuen nahiz zaintzaileen partaidetzarako moduak eta kexen zein iradokizunen liburua azalduz.
- Kalitateko estandarrak, errendimenduaren adierazleak eta poztasun inkestak ezarri.
- Bertako edo Gizarte Ekintza Sailarekin hitzarturiko gizarte zerbitzuen ebaluazio eta jarraipen sistemak ezarri.
- Lurraldeko zentroetan eta zerbitzuetan kalitate planak sustatu.

- Kalitatea segurtatzeko eta ziurtatzeko prozesuak sustatu.

3. e. 7. Gizarte zerbitzuen arloan laguntza-etikako batzordeak sortu.

- Bizkaiko gizarte zerbitzuen arloan laguntza-etikako batzordeak legez arautu.
- Gizarte zerbitzuetako profesional taldearen oinarritzko eta aurreraturiko heziketak sustatu.
- Bizkaian foru titulartasuneko gizarte zerbitzuen laguntza-etikako batzordea sortu.
- Udalaren titulartasun publikoa eta titulartasun pribatua duten gizarte zerbitzuetan batzordeen sorrera sustatu.

3. e. 8. Adineko pertsonentzako zerbitzuen (indarreko araudiak arauturikoak) Ikuskapena eta Kontrola garatu.

3. e. 9. Erabiltzaileek Gizarte Ekintza Sailari buruz (adineko pertsonen arloan) duten iritzia jakin.

f) Adineko pertsonentzako gizarte zerbitzuen profesionalizatzeko handiagoa sustatzea.

3. f. 1. Bizkaiko gizarte zerbitzuetako profesionalen heziketa iraunkorra sustatu, adineko pertsonen laguntzan.

- Heziketa iraunkorreko planak garatu, Gizarte Ekintzako Foru Institutuaren menpeko gizarte zerbitzuetan.
- Gizarte Ekintza Sailak heziketa bereziko ikastaroak antolatu.
- Gizarte Ekintza Sailarekin hitzarturiko edo adosturiko gizarte zerbitzuetan heziketa sustatu.

3. f. 2. Jarduketa arlo honetan beharrezkoak diren eta homologaturik dauden unibertsitateko eta lanbide heziketako curriculumak sustatu.

3. f. 3. Sektoreko profesional taldeen lan baldintzak apurka-apurka arautzea sustatu.

4. Gizarte eta osasun sistema guztien arteko koordinazioa sustatzea, laguntzaren jarraitasuna bermatzen duen eredu egonkorra garatzeko, bai gizarte zerbitzuen sistemaren barruan eta bai osasun sistemaren barruan

a) EUDELekeko eta Bizkaiko Lurralde Historikoan dauden udalekiko koordinazioa sustatu, bertako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekiko

koordinazioa ere bai, administrazio bakoitzaren eskumen arloak errespetatuz.

4. a. 1. Gizarte Ekintza Sailaren eta OGZen arteko baterako lana (sarean egindakoa) trinkotu, adineko pertsonen laguntzarako zerbitzuen zorro barruko arlo guztietan, bai sistemarako sarbide bakarreko eginkizuna sustatuz, bai partekaturiko proiektuak garatuz.

4. a. 2. OGZen partaidetza sustatu, partekaturiko lan prozesuen diseinuan, datu-base integratuak eta bateragarriak dituzten kudeaketa tresna komunak edukitzeko.

4. a. 3. Ikasgela Iraunkorra erabili (OGZekin), baterako hausnarketarako, koordinaziorako, heziketarako eta adineko pertsonentzako gizarte zerbitzuei buruzko informazioa emateko.

b) Gizarte eta osasun laguntza sustatzea, adineko pertsonetikiko jarduketa arlo guztietan, Gizarte eta Osasun Laguntzako Euskadiko Plana betetzeko.

4. b. 1. Gizarte eta Osasun Laguntzako Lurralde Batzordea sustatu, Bizkaian osasun sistemen eta gizarte zerbitzuen sistemak koordinatzeko.

4. b. 2. Arlokako banaketa duten sektoreen mapak egin, eta bertan, Osasuna eta Gizarte Zerbitzuak bat etorriko dira.

4. b. 3. Gizarte eta osasun kudeaketako nahiz ebaluazioko protokolo adostuak egin, baita bi sistemen arteko deribaziokoak ere, jarduketa maila guztietan.

4. b. 4. Baterako osasun eta gizarte proiektuak egin, bi administrazioen baterako finantziazio sistema mugatuz, baita erabiltzaileen baterako ordainketa sistema ere.

4. b. 5. Kasuak ezarritako osasun eta gizarte zerbitzuetarantz bideratzeko eta ebaluatzeko taldeak (kudeaketa) eratu.

c) Gizarte Ekintza Sailarekiko laguntzaileak diren erakunde pribatuekiko koordinazio bide egonkorra ezarri.

4. c. 1. Koordinaturiko topaketa eta lan foroak garatu.

4. c. 2. Erakunde laguntzaileek eurretan eragina duten prozesuen diseinuan parte hartu.

4. c. 3. Gizarte Ekintza Sailak partaidetza aktiboa izan, erakunde laguntzaileen proiektuetan, proiektuok saila bera inplikatzeko dutenean.

4. c. 4. Zentroetarako bisitaldiak egin eta bertan garaturiko programen berri izan.

4. c. 5. aliabide informatikoen, foroen eta abarren bidezko komunikazio dinamikak sortu.

d) EAEko beste Lurralde Historiko batzuetako Foru Administrazioekiko eta Eusko Jaurlaritzarekiko koordinazioa sustatu, gero eta homogeneoagoak diren zerbitzuen zorroak, laguntza ereduak, estaldurak eta arazuko eremuak ezartzeko.

5. Bizkaiko Gerontologia Planaren jarraipena egiteko sistema ezartzea eta Gizarte Ekintza Sailak egindako lan-sistemak egokitzea, plan hori hobeto betetzeko

a) Gerontologia Planaren garapena, horren helburuak lortzeko maila eta horretan eragina izan duten faktoreak ebaluatzea.

5. a. 1. Adineko pertsonentzako gizarte zerbitzuen adierazle sistema erabili.

5. a. 2. Sailaren zuzendaritzapeko jarraipen batzordea sortu.

5. a. 3. Adineko Pertsonen Kontseiluaren barruko batzorde berezia sortu.

b) Gizarte Ekintza Sailak adineko pertsonen arloan garaturiko jarduketa guztiak barru hartzen dituzten Prozedura Gidaliburuak lantzea.

5. b. 1. Jarduketa printzipio, irizpide eta prozedura teknikoak eta administratiboak zehaztu.

5. b. 2. Zerbitzu/atal bakoitzak eta langile teknikoek edo administratiboek egin beharreko funtzioak eta lanak argi zehaztu.

5. b. 3. Koordinazio eta talde lanerako mekanismoak ezarri.

5. b. 4. Zerbitzu eta atal bakoitzari esleituriko funtzioak eta lanak garatzeko tresnak eta protokoloak proposatu.

5. b. 5. Arloko arduradun teknikoak eta kasuko koordinatzailea sortu.

5. b. 6. Lanpostu bakoitzeko espediente-ratioak zehaztu, ikerturiko prozesuetan.

5. b. 7. Gizarte Ekintza Sailak ezarritako prozeduren adierazleak identifikatu.

c) Prozedurak (prozesuak) informatizatzea, horien garapen osoan.

5. c. 1. Informazio sistema berria garatu, ondo informatizatuta, landutako Prozedura Gidaliburuen arabera.

5. c. 2. Espedienteak kudeatzeko sistema automatikoa garatzeko tresna informatikoa inplementatu.

5. c. 3. Jardueraren adierazleak dituen aginte-koadroa garatu.

d) Kudeaketarako tresna informatikoa ezartzeko Heziketa Plana diseinatu eta gauzatu.


e) Lan-prozesuen hobekuntza iraunkorreko sistema aukeratzea.

5. e. 1. Ezarritako prozesuen hobekuntza iraunkorrerako metodologia identifikatu: iradokizunen postontzia, kalitate zirkuluak, prozesuen bertsioak,...

5. e. 2. Foru erantzukizuneko zerbitzuen administrazio kudeaketaren prozesuak ebaluatu.

5. e. 3. Prozesuen hobekuntzarako heziketa garatu.

f) Talde lana sustatzea, Gerontologia Planaren garapenean inplikaturiko Sailaren maila guztietan.



I. eranskina

Zerbitzuen zorroa

Gerontologia Plan honen helburu nagusienetariko bat "adineko pertsonen euren beharrezkoen eta eskarien arabera laguntzea da, programen, zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen (zerbitzuak, orokorrean) zorro zabalaren bitartez", eta, horretarako, "katalogoko bat landu nahi da eta berori osatzen duten zerbitzuak argi zehaztuta egongo dira bertan".

Eranskin honetan, katalogo horretarako lehenengo hurbiltzea egiten da, eta hori lau jarduketara eremuk osatzen dute:

- **BIZI KALITATEA ETA ZAHARTZE AKTIBOA.** Horren helburua adineko pertsonen bizi kalitatea eta zehartze aktiboa nahiz osasuntsua sustatzea da, euren autonomia pertsonalaren mantentzea sustatuz, arrisku faktoreak murriztuz (prebentzio jarduketak nahiz jarduera fisikoa garatuta) eta sormenezko zein elkartasunezko aisialdia garatzeko aukerak sustatuz.
- **ETXEAN GELDITZEN DEN MENPEKO ADINEKO PERTSONAREN LAGUNTZA.** Horretarako, programa, zerbitzu eta prestazio ugari eskaintzen zaizkie mendekotasuna duten adineko pertsonen, etxean bertan laguntza kalitate onarekin gelditu ahal izateko.
- **LAGUNTZA SARE INFORMALAREN SUSTAPENA.** Zaintzen sare informalaren protagonismoa sustatu eta gizarte nahiz ekonomia laguntzako neurriak eskaintzen dira, erantzukizun hori garatu ahal izateko.
- **ETXEKO LAGUNTZAKOAK EZ DIREN AUKERAK,** etxean gelditzeko aukerarik ez duten pertsonen kalitateko egoitza aukerak eskaini ahal izateko.

JARDUKETA EREMUA: BIZI KALITATEA ETA ZAHARTZE AKTIBOA

Horren helburua adineko pertsonen bizi kalitatea eta zehartze aktiboa nahiz osasuntsua sustatzea da, euren autonomia pertsonalaren mantentzea sustatuz, arrisku faktoreak murriztuz (prebentzio jarduketak nahiz jarduera fisikoa garatuta) eta sormenezko zein elkartasunezko aisialdia garatzeko aukerak sustatuz.

- Errenta mailarik txikiak dituzten adineko pertsonen egoera ekonomikoa hobetu.
- Adineko pertsonen isolamendua ekidin, euren gizarte jarduerak eta pertsonen arteko harremanak sustatuz.
- Talde honen giza baliabideen gizarte aprobetxamendu hobea egin, euren autoestimua eta partaidetza nahiz gizarteratze maila hobetzeko.
- Adineko pertsonen partaidetza sustatu, kasuan kasuko komunitateko bizitzan eta aurrerakuntzan, eta beraz, gizarte, politika, produkzio eta kultura bizitzako jardueren garapenean inplikatu, elkartasuna eta gizarte kohesioa sustatuz.

Zerbitzuak

(1). Prestazio ekonomikoen kudeaketa (horiek eskubide subjektibotzat ezarrita), adineko pertsonen egoera ekonomikoa hobetzeko.

- **Erretiroko kontribuzio gabeko pentsioa.** Aldian behingo prestazio ekonomiko hau errenta edo diru-sarrera nahikorik ez dagoenean onartzen da.
- **Gizarte Ongizateko Fondoaren pentsioa.** Aldian behingo prestazio ekonomiko hau gizarte zerbitzuen osagarria da, eta bizitzaren oinarrizko beharrezkoen aurre egiteko beste diru-sarrerarik ez duten adineko pertsonen ematen zaie.
- **Oinarrizko errenta.** Laguntzako aldian behingo prestazio ekonomiko honen helburua, izan ere, bizitzeko oinarrizko gastuei aurre egiteko baliabide ekonomiko nahikorik ez duten pertsonen beharrezkoak betetzea da. Prestazio hau, izatez, eduki ekonomikoa duten era guztietako gizarte baliabideen eta prestazioen (indarreko legerian jasotakoak) ordezkioa eta osagarria da, prestazio horiek titularrak edo bizikidetzaren unitate independenteko edozein kidek jaso behar dituzten.

(2). Foru dirulaguntza osagarriak, eskubide subjektibotzat ezarritako prestazio ekonomikoak indartzeko.

- **Pentsioen edo sorospenen jasotzaileentzako banakako dirulaguntzak.** Aldian behingo banakako dirulaguntza hauen helburua diru-sarrera maila jaki-

na bermatzea da, kontribuziorik gabeko pentsioa, Gizarte Ongizateko Fondearen pentsioa edo Gutxieneko Dirusarrerren Bermeko laguntza (Elbarriak Gizarteratzeari buruzko Legeak araututa) jasotzen duten (zenbateko osoan edo zati batean) pertsona guztiei, baldin eta Oinarrizko Errenta jasotzen duen bizikidetzaren unitate ekonomiko independente baten barruan ez badaude.

- **Gutxieneko Bermeko Laguntza Prestazioa.** Aldian behingo dirulaguntza finalista, bazterkeria edo horren arrisku egoeran dauden pertsonentzat (Oinarrizko Errenta oso-osorik edo neurri batean jasotzen duten pertsonak).

(3). Adineko pertsonentzako jardueren eta programen sustapena, pertsonen arteko harremanetarako eta zahartze aktiboko prozesuetarako. Esate baterako, honako programa hauek:

- Sormenezko aisialdi programak.
 - Okupazio programak: eskulanen lantegiak, heziketa ikastaroak (hizkuntzak, informatika,...) eta mintegiak.
 - Kultura programak: prentsarako harpidetza egitea eta liburutegiei liburuak eskuratzea, hizketaldiak eta hitzaldiak, irakurmen lantegiak, musika saioak, antzerkia, dantzak eta koruak.
 - Sormenezko programak: ibilaldiak, maia jolasen txapelketak, dantzaldiak, ospakizunak eta beste jarduerak batzuk.
 - Kirol programak: indartzeko eta mantentzen fisikorako programak, esaterako, gimnasia, yoga, kirol probak eta txapelketak, masajeak, erlaxazioa, gorputz adierazpena,...
- Belaunaldien arteko eta gizarte boluntariorikotzako programak.
 - Adineko pertsonentzako gizarte boluntariorikotzako eta heziketako programak, laguntzako lanetarako eta adineko beste pertsona batzuei nahiz familiakoei laguntzeko.
 - Lanbide aholkularitza emateko (legezkoa, etab.) programak, adineko pertsonen adineko beste pertsona batzuei halako aholkularitza emateko,

teko, eta horrela, euren eguneroko bizitzan laguntzeko.

- Adineko pertsonen museoetara, erakusketetara, ibilbide turistikoetara eta abarretarako laguntzeko programak.
- Adineko pertsonen ekintzaileei, enpresaburu gazteei, enpresa txikiei eta beste erakunde batzuei emandako aholkularitza teknikorako programak.
- Esperientzia jakinarazteko programak, kongresuak, hitzaldiak, ikastaroak, jardunaldiak eta lantegiak antolatuz, adineko pertsonen sustapenarekin.
- Gizarte partaidetza sustatzeko programak.

JARDUKETA EREMUA: ETXEAN GELDITZEN DEN MENPEKO ADINEKO PERTSONAREN LAGUNTZA

Horretarako, programa, zerbitzu eta prestazio ugari eskaintzen zaizkie mendekotasuna duten adineko pertsonen, etxean bertan laguntza kalitate onarekin gelditu ahal izateko.

- Mendekotasun maila desberdinak dituzten adineko pertsonen bizitzaren baldintza materialak hobetu, etxean egindako jarduketan bitartez.
- Etxean bakarrik luzaro egoten diren adineko pertsonen laguntza eskaini, baliabide telematikoen erabiliz.
- Zerbitzu formalen bidez, adineko pertsonen euren etxean lagundu, arlo pertsonalean, etxekoan eta osasunekoan.
- Zentro espezializatuetan lagundu, anbulatorioen bidez, mendekotasuna duten adineko pertsonen.

Zerbitzuak

(4). Laguntza teknikoak eta etxebizitzaren barne egokitzapeneko laguntzak sustatu, ezintasuna duten adineko pertsonen kasuan; laguntza horien helburua mendekotasuna duten adineko pertsonen egokitua eta irigarria den etxebizitza lortzea da, euren bizi baldintzak hobetzeko eta etxe barruko istripuak ekiditeko. Programa honek honako helburu hauek ditu:

- Etxebizitzen barruko egokitzapen maila handitu, mendekotasuna duten adineko pertsonen beharriaz dagokienez, maila funtzionaleko ezintasuna murrizten dituzten laguntza teknikoak eta aldaketak bitartez.
- Euren mugikortasuna ekiditen duten oztopo arkitektonikoak ezabatu.

Funtsean honako hauek dira:

- Autonomia hobetzeko eta mendekotasuna murrizteko laguntza teknikoak; hain zuzen ere, adineko pertsonaren ezintasuna edo mendekotasuna aurreikusteko, konpentsatzeko, aritzeko edo neutralizatzeko erabiltzen diren produktu, tresna, zerbitzu edo sistema tekniko guztiak.
- Ezintasuna duten adineko pertsonen etxebizitzaren barne egokitzapenerako laguntzak (garbiketa edota osasun eremuak, barne zirkulazioko nahiz maniobrakozonaren egokitzapena, gela barruko kontrol domotikoa, etab.); hori guztia, berriz, eraginkortasun nahiz eragingarritasun, soiltasun eta itzulgarritasun irizpideen arabera baloratuko da.

(5). Etxerik etxeko telelaguntza zerbitzua, bakarrik bizi diren edo egunaren zati handia bakarrik ematen duten adineko pertsonentzat, ahultasunaren edo mendekotasunaren eraginezko arriskuan egon daitezkeenean; horren bidez, agian ezinbestekoa ez den instituzionalizazioa ekidin nahi da. Zerbitzu teknikoak eta gizarte mailakoa da, eta erabiltzaileei laguntza zentro batekiko kontaktuan sartzeko aukera ematen die; zentro horretan trebakuntza handiko profesionalak daude, halako pertsonen larrialdi egoerei edo gizarte beharriazko egoerei erantzun egokia emateko, bai eurenez edo bai beste baliabide komunitario batzuen bidez.

Zerbitzua eguneko 24 orduetan eta urteko egun guztietan ematen da, eta honako prestazio hauek eskaintzen ditu:

- Erabiltzaileek izan ditzaketen larrialdi egoeren laguntza (osasunekoak edo beste mota batekoak: etxe barruko sutea, lapurretak, etab.), eta horretarako,

bidezko baliabide komunitario guztiak mugiarazten dira.

- Erabiltzaileen gizarte beharriazko egoeren laguntza eta jarraipena (krisialdi pertsonalak, bakardadea, itolarria, osasun laguntzarik behar ez duten erortzeak,...); halaber, erabiltzaileen etxerik etxeko laguntza, unitate mugikorren bitartez.
- Erabiltzaileen agenden eraketa eta kudeaketa, erabiltzaile horiei aurretiaz ezarritako une jakinerako finkaturiko jarduerak egin behar dutela gogoratze-ko, eta hori aldi behin edo aurretik ezarritako aldizkakotasunarekin egin behar da (sendagilearengana joan, sendagaiak hartu, gestioak egin,...).
- Erabiltzaileen esku dauden gizarte baliabideei buruzko informazioa eta interes orokorreko informazioa.

(6). Etxerik etxeko laguntza zerbitzuak sustatu, hau da, adineko pertsonen etxean laguntza pertsonalak edota zerbitzu jakinak eskaini, pertsona horien independentzia funtzionala mugatua denean, eta zerbitzu horiek, berriz, banakako plan baten bidez egituraturik daude. ELZen helburua hau da:

- Laguntza pertsonala garatzea, prebentzioa eta errehabilitazioa, eta ez zaintzak ematea bakarrik.
- Etxeko lanetan laguntzea. Prestazio osagarritzat honako hauek har daitezke: etxerik etxeko janari edo garbiketa zerbitzua eta etxe barruko konponketen kudeaketa.

(7). Programa psikosozialak sustatu, narridura kognitiboa duten adineko pertsonen laguntzeko; hain zuzen ere, psikosuspertzeko lantegiak, logopedia, etab., adineko pertsona etxean autonomia ahalik eta handienarekin gelditu ahal izateko.

(8). Eguneko zentroa, hau da, familiari laguntzeko gerontologia zentro terapeutikoa; ambulatorio eran, lanbide anitzeko talde baten bidez, osoko laguntza espezializatua ematen die mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonen esku-hartze programa batzuen bitartez: esku-hartze terapeutikoa (funtzionalak, kognitiboak, psikoafektiboak eta sozializagarriak), osasuneko (elikadura nahiz nutrizioa, garbiketa-

ta eta higieena, esfinterren kontrola, erortzeen prebentzioa, erizaintzako oinarritzako laguntza), familiakoa eta ingurukoa. Eguneko zentrozen helburu nagusiak honako hauek dira:

- Adineko pertsonen autonomia ahalik eta gehien sustatu.
- Familiari laguntza eman, arretan eta zaintzetan atsedena hartu ahal izateko, eta eurengana zuzenean zuzendutako programak jaso ahal izateko.

JARDUKETA EREMUA: LAGUNTZA SARE INFORMALAREN SUSTAPENA

Zaintzen sare informalaren protagonismoa sustatu eta gizarte nahiz ekonomia laguntzako neurriak eskaintzen dira, erantzukizun hori garatu ahal izateko.

- Sare informalak emandako laguntzaren kalitatea hobetzea, lagundutako pertsonen ahalmenak eta autonomia ahalik eta gehien garatzeko.
- Zaintzaileen bizi baldintzak hobetzea, ahal den neurrian zaintzen eraginezko zamak arinduta; edo, beste modu batera esateko, sare informalaren eragileek laguntza ematea, kasu bakoitzaren arabera aplikagarriak diren neurrien bidez, familian eragina izan dezakeen narriadura gero eta handiagoa ekiditeko.

Laguntza informalaren osagarritasunera (eta ez ordezpenera) bideraturiko aurreko arloko gizarte zerbitzuak ez ezik (adibidez, etxerik etxeko laguntza eta eguneko zentroak), funtzio aringarria eta laguntzako ere badute, mendekotasun arazoak dituzten adineko pertsonen zaintzaileei dagokienez; programa aringarrien helburua, izan ere, zaintzailearen estresa sortzen duten dimentsioetariko batzuetan eragin positiboa izatea da, zaintzaren ondorio kaltegarriak modulatzeko edo ezabatzeke eta, funtsezko helburua izanik, adineko pertsona erabiltzailearen gaineko jarduketa egokia garatzeko.

Zerbitzuak

(9). Familiekiko esku-hartze programa sustatu (Zainduz programa) Horren helburua zaintzailearen "zama" arintzea da, horrek

lana ez uzteko, eta horretarako, laguntza egokiak eskaintzen zaizkio. Programaren helburuak honako hauek dira:

- Informazio, orientazio eta aholkularitza garrantzitsua eskaintzea, banakako kasu bakoitzari buruz, batik bat zaintzak partekatzeko dauden laguntzako baliabide formalei buruz.
- Zaintza baldintza ahalik eta onenetan garatzeko behar diren ezagupenak eta trebetasunak eskaini.
- Norberaren zaintzarako estrategiak erakutsi, batez ere estresa murrizteko estrategiak (erlaxazio teknikak, denbora antolatzeak, gizarte harremanak, zaletasunak,...).
- Zaintza familiako beste kide batzuekin partekatzeko estrategiak eman.

Honako honen bidez egituraturik dago:

- Familiei adineko pertsonen behar dituzten zaintzei loturiko alderdi orokorreari buruzko informazioa, orientazioa eta aholkularitza ematen zaizkie, kasuan kasuko gaixotasunen eta mendekotasun mailen arabera; heziketaren barruan, zaintzailearen trebetasunen hobekuntza eskaintzen da, mendekotasuna duen adineko pertsonari laguntza hobe eskaintzeko (komunikazio trebetasunak eta arazoaren konponketa), gaixotasuna diagnostikatzen den unetik; izan ere, horrek luzatu egiten du familiako gaixoa etxean zaintzen jarraitu ahal izateko aldia eta, horrela, handitu egiten da bien bizi kalitatea.
- Taldepsikologikoak eta hezkuntzakoak, zaintza hobe eskaintzeko eta euren burua hobeto zaintzeko behar diren ezagupenak emateko: zaintzak partekatu, laguntzako baliabideak bilatu, egunero kalera irten, lagunak ikusi, estresari aurre egiteko estrategiak, erruduntasun sentimenduak kanporatzeko mekanismoak (gizarte baliabide formalak erabiltzeko erabakia hartuz gero), etab.
- Norberaren laguntzako edo elkar laguntzako taldeak; hain zuzen ere,

familia talde baten bilerak (profesionalak ikuskatuta), gizarte laguntza emozionala eta informazio mailakoa eskaintzeko, zaintzen eraginezko arazoak eta esperientziak partekatzeko eremua gaituta, eta kide bakoitzak erabilitako estrategien berri emateko nahiz jasotzeko. Talde horiek laguntza emozionala eman eta jasotzen dute, sentimenduak nahiz iritziak adierazten baitira, eta gainera, berdinaren talde baten barruko kide izatearen sententzia sortzen dute.

- Banakako, taldeko eta familiako terapiei bidezko laguntza psikologikoa, erlaxazioko nahiz buruko kontrolerako teknikak eta beste mota bateko trebetasunen ikaskuntza; adibidez, estresa erabiltzeko modua, etab.

(10). Boluntario-taldeak sustatu, zaintzaile laguntzeko orduan, eraginpeko familiak ez diren laguntzako beste sare informal batzuk erabiltzeko aukera eskainita.

(11). Mendekotasuna duten adineko pertsonen edota horien familiakoei (mendekoak) zuzendutako dirulaguntzak, etxean egonik gizarte zerbitzu formalen laguntzarik jasotzen ez dutenean; halako dirulaguntzen helburua pertsona hauek etxean jarraitzea da. Prestazio ekonomiko hauekin batera, kontrolerako mekanismo egokiak eskaintzen dira, laguntzok mendekotasuna duen adineko pertsonari laguntzeko erabiltzen direla egiaztatzeko, eta gainera, horiekin batera profesionalen bidezko heziketa egokia eskaintzen da.

(12). Egoitzetako aldi baterako egonaldia; zerbitzu horrek, iraupen laburreko aldietan, laguntza ematen dio gehienetan etxean bizi den mendekotasuneko adineko pertsonari, hain zuzen ere, larrialdiko uneetan edo zaintzaileek atsedena hartu behar dutenean. Aldi baterako egonaldien barruan, modu malguan, gaixotasun aldiakotako larrialdiko eskariak edo ezusteko gorabeherak sartzen dira, zaintzaile nagusiari dagokionez, baita familiak aldi baterako atsedena hartzea eta oporrak nahiz atsedenaldirako antolatzea ere, eta laguntzarako leku egokia eduki behar izatea ere bai, etxebizitzan

obrak egiten direnean, etxe aldaketa da-goenean edo krisialdiak sortzen direnean.

(13). Mendekotasuna duten adineko pertsonen oporretarako programen sustapena, edo horien eta zaintzaileen baterako oporraldien sustapena, profesionalen laguntzarekin, familiakoak lasaiago ibiltzeko.

JARDUKETA EREMUA: ETXEKO LAGUNTZAKOAK EZ DIREN AUKERAK

Etxean gelditzeko aukerarik ez duten pertsonen kalitateko egoitza aukerak eskaini ahal izateko.

- Mendekotasuna duten adineko pertsonen laguntzea, gerontologia zentro espezializatuetan modu iraunkorrean sartuta.
- Gizarte eta osasun beharrianak dituzten adineko pertsonen (mendekotasuna dutenak) aldi baterako egonaldiak eskaintzea, horretarako unitate berezietan.
- Adineko pertsonen egoitzako plazaren okupaziokoak ez diren aukerak eskaintzea: etxebizitza komunitarioak, babespeko etxebizitzak edo apartamentuak eta beste bizikidetzak unitate batzuk.

Zerbitzuak

(14). Egoitzetako egonaldi iraunkorra, mendekotasuna duten adineko pertsonentzat; gerontologiako zentro horien helburua, izan ere, ezintasun maila jakina duten eta etxean gizarte baldintza onargarrietan bizi ezin duten (aukerako beste baliabide batzuen laguntza eduki arren, komunitateari irekitako zentroak, lanbide arteko laguntzarekin) adineko pertsonen laguntza iraunkorra ematea da.

(15). Gizarte eta osasun unitateetako aldi baterako egonaldia; horren helburua, izatez ere, egoitzako beste gizarte zerbitzu batzuen bidez betetzeko moduko gizarte eta osasun beharrianak dituzten adineko pertsonen laguntzea da. Halako unitateek eskainitako laguntzaren helburua hau da:

- Ospitaleko alta eta bizi-itxaropen laburra duten adineko pertsonak, zaintza aringarririk behar ez duten eta etxera itzuli ahal

direnak; horientzat egoitza tradizionalak ez dira egokitzat hartzen.

- Ospitalean egon ondoren susperraldian dauden adineko pertsonak, edo osasun egoera oso ahulean edo ezegonkorrean daudenak, ezintasun fisikoari edota psikologikoari loturiko gaixo larriarekin, osasun laguntza iraunkorrak behar izanik
- Asaldura faseko demetzia prozesuen eraginpeko adineko pertsonak; jokabide arazoak, erasokortasuna eta halako gaitzak dituzte, eta horiek larriki itxuragabetu ahal dute egoitza zentro baten ohiko jarduera.
- Gizarte eta osasun eskabide handiko beste egoera batzuk. Besteak beste, beheragoko lerruneko agirietan azaldutako profilak jaso daitezke:
 - a. Egoitzetan sartutako adineko pertsonak, egoitzako kideei kutsatzeko moduko gaixotasun kutsagarriak dituztenak, horien ezaugarriak aintzat hartuta akutuen ospitaletako gaixotasun kutsagarrien zerbitzuetan sartzea komenigarria ez denean.
 - b. Ospitalean alta hartu duten pertsonak, euren ezaugarri pertsonalak kontuan hartuta ospitalean jasotakoarekiko errehabilitazio osagarria behar dutenak, ohiko etxebizitzara bizitza autonomoa garatzeko moduan itzuli ahal izateko (agian, gaixotasunaren eraginezko egonalditzat har daiteke).
 - c. Ospitalean alta eta laster (horretarako behar den administrazio tramitazioa egin ondoren) egoitza zerbitzu batean sartzeko itxaropena duten pertsonak, baldin eta etxebizitzara itzuli ezin badute, halakorik ez dutelako; gizarte eta osasun zerbitzuan sartzeko administrazio tramitea, dena den, ez dirudi egoitza zerbitzu arruntean premia sartzeko tramitea baino bizkorragoa denik.

(16). Egoitzako egonaldi iraunkorra, zahartzen ari diren ezinduentzat; hau da, bizi osoa edo horren zati handia ezintasun garrantzitsuekin bizi izan ondoren zahartzen ari diren pertsonentzat.

(17). Familia harrerako programaren sustapena; hain zuzen ere, adineko pertsonak euren ez den familia batean sartzen dira eta familia horrek laguntza ekonomikoa jasotzen du kasuan kasuko pertsonari ostatua, mantenua, laguntza eta laguntasuna emateagatik. Landa inguruetan, horren bidez, lehenagoko adiskidetan eta erlazio loturak indartzen dira.



II. eranskina

2006 – 2011ko
Aurrekontuak

Ondoren proposatzen den informazio ekonomikoaren jatorria Ahaldu Nagusiak aurkezturiko "Duintasunerako eta Elkartasunerako Gizarte Akordioa" agirian dago, eta agiri hori Batzar Nagusietan ordezkaritza zuten talde guztiei aurkeztu zitzaizen.

Eranskin honetan, neurri batean, Geronologia Planaren eragin ekonomikoa dago jasota; informazio hori, berriz, lehen proposaturiko zerbitzuen zorro barruko alderdi jakinetara mugatzen da, "Bizi Kalitatea eta Zahartze Aktiboa" deritzonari buruzko edukiak lehengo agirian (mendekotasuna duten adineko pertsonen laguntzari buruzko agiria) jasota ez zeuden neurrian.


Honako zerbitzu hauei buruzko informazio ekonomikoa dago jasota:

- Laguntza teknikoak.

- Telelaguntza.
- Etxerik etxeko laguntza.
- Eguneko zentroa (asteburuko eta jaieguneko zerbitzua ere barne).
- Zainduz programa: mendekotasuna duten adineko pertsonen familiekiko esku-hartzea.
- Boluntariotza eta asoziazionismoa.
- Zaintzaileentzako dirulaguntzak.
- Adineko pertsonen eta horien zaintzaileen oporretarako programa.
- Egoitza laguntza (egonaldi iraunkorra eta aldi baterakoa) eta osasun nahiz gizarte laguntza.

Halaber, "kostu gordina" eta "kostu garbia" bereizten dira; azken hori, izan ere, "gizarte eta osasun prezio publikoaren eraginezko diru-sarrerak" murriztearen emaitza da.

Zerbitzuen zorroa	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Laguntza teknikoak	3.166.531	3.261.527	3.359.373	3.460.154	3.563.959	3.670.877
Telelaguntza	2.648.800	2.948.100	3.351.425	4.123.801	4.207.605	4.437.055
Diru-sarrerak prezio publikoa	328.500	547.500	766.500	1.084.050	1.324.950	1.565.850
Kostu garbia	2.320.300	2.400.600	2.584.925	3.039.751	2.882.655	2.871.205
Etxerik laguntza	22.802.392	24.557.991	27.072.004	30.032.870	33.217.464	34.543.133
Diru-sarrerak prezio publikoa	4.104.431	4.420.438	4.872.961	5.405.917	5.979.144	6.217.764
Kostu garbia	18.697.961	20.137.553	22.199.043	24.626.953	27.238.320	28.325.369
Eguneko zentroa	9.393.415	12.627.524	21.797.044	28.030.682	33.969.827	35.332.593
Diru-sarrerak prezio publikoa	0	0	5.194.058	6.356.334	7.695.483	8.007.544
Kostu garbia	9.393.415	12.627.524	16.602.987	21.674.348	26.274.344	27.325.050
Zainduz programa	100.000	251.136	251.136	333.334	420.237	432.844
Boluntariotza - Asoziazionismoa	30.000	60.000	60.000	75.000	90.000	105.000
Zaintzaileentzako dirulaguntzak	1.327.836	1.527.011	1.756.063	2.019.473	2.322.393	2.670.752
Adineko pertsonen eta horien zaintzaileen oporrak	30.000	45.000	60.000	75.000	90.000	105.000
Egoitzako laguntza	85.718.501	101.235.145	119.300.808	140.081.500	156.512.391	174.966.897
Diru-sarrerak prezio publikoa/ Osasuna	32.344.895	35.689.515	41.008.636	46.745.388	52.890.726	59.968.843
Kostu garbia	53.373.606	65.545.630	78.292.172	93.336.112	103.621.665	114.998.054
GUZTIRA gordina	125.217.475	146.513.434	177.007.853	208.231.814	234.393.876	256.264.151
Diru-sarrerak prezio publikoa/ Osasuna	36.777.826	40.657.453	51.842.155	59.591.689	67.890.303	75.760.001
Kostu garbia GUZTIRA	88.439.649	105.855.981	125.165.699	148.640.125	166.503.573	180.504.151



III. eranskina

Azpiegitura Plana

Mendekotasuna duten adineko pertsonen egoitzako eta eguneko zentroetako zerbitzuetan laguntzeko gizarte azpiegituren hirugarren plan honek osatu egin nahi du oraindik ere garatzen ari diren lehenengo bi planen bidez lorturikoa. Plan horren epemuga 2012. urtea da, berori guztiz betearazita egoteko.

Planaren helburuak honako hauek dira:

- Egoitza estaldura egokia lortzea, 65 urteko edo hortik gorako biztanleen %5, lurralde, eskualde eta azpieskualde mailan.
- Titulartasun publikoko egoitza estaldura egokia lortzea, %1,5ekoa, aipaturiko hiru eremuetan, egoitzako foru sarean plazen erabilgarritasuna bermatzeko.
- Eguneko zentroen estaldura egokia lortzea, 65 urteko edo hortik gorako biztanleriaren %1, lurralde, eskualde eta azpieskualde mailan.

Hurrengo tauletako datuak, atera ere, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak kontsultaturiko (gizarte baliabideak kontrolatzeko eta baimentzeko lana garatzen duen erakundetzat egindako kontsulta) iturrietatik atera dira:

- Alde batetik, Foru Aldundiaren gizarte azpiegituren planen etorkizuneko gauza-pena, Bizkaiko Bideak – Bideak sozietatearen bidez.
- Bestetik, ekimen pribatuek egoitzak eta eguneko zentroak aldatzeko eta sortzeko garaturiko ekimenen aurretiazko baimen eskabideak.
- Azkenik, hori garatu duten edo garatuko duten toki erakundeek eskainitako informazioak.

Halaber, plan honen azpiegitura batzuk jaso dira, eta gaur egun horietan lan egiten ari dira. Horri dagokionez, honako hauek hartu behar dira aintzat:

- Gizarte eta osasun zentroa (100) Txurdinagan.
- Eguneko zentroa (40) duen egoitza (120) Gorlizen.
- Eguneko zentroa (30) Bilbon – Isozaki.
- Eguneko zentroa (25) Bermeon.
- Eguneko zentroa (25) Busturian, eta
- Eguneko zentroa (25) Ondarroan.

Lehen aipaturiko helburuak lortzeko aukera ematen duten beste azpiegitura batzuen beharri-zana, berriz, esku artean ditugun datuak arretaz irakurtzearen ondorioz detektatu da.

1. EGOITZAKO PLAZEN ESTALDURA

Lurralde mailan, ez da beharrezkoa egoitza berririk sortzea, 2012an %5,79ko estaldura egongo baita.

Hala eta guztiz ere, eskualde eta azpieskualde mailan banaketa hobeko estaldura edukitzeko, egoitza berriak eraiki behar dira IBAIZABAL-NERBIOI eskualdean, hain zuzen ere, DURANGOALDEA ETA BASAURI-ETXEBARRI-GALDAKAO azpieskualdeetan. Beste bi azpieskualde horiek neurri batean arindu egin dezakete bertako plaza urritasuna, baina horrela ez litzateke lortuko %5eko helburua. Horrenbestez, Galdakaoko udalerrian egoitza bat sortzeko lanean ari dira.

Bestalde, EZKERRALDEko azpieskualdeak egoitzako plazen urritasun handia dauka, eta hori MEATZALDEKO eta BARAKALDOKO eskaintzaren bidez arindu ahal da.

2. EGOITZA PUBLIKOETAKO PLAZEN ESTALDURA

Lurralde mailan ere ez da beharrezkoa egoitza berririk sortzea; izan ere, 2012an titulartasun publikoa duten plazek %1,5eko estaldura izango dute. Hala eta guztiz ere, 2005ean egindako egoitza plazen pilaketa prozesuan, eskualderen batek ez du lortu egoitzako foru sarean plaza kopuru nahikoa bermatzeko pilaketa nahikoa, mendekotasuna duten adineko pertsonen laguntza bermatzeko.

Hori dela eta, titulartasun publikoaren bidezko estalduak eskualde eta azpieskualde mailan hobeto banatuta egoteko, beharrezkoa da BILBON egoitzak eraikitzea. Horrenbestez, udalerririk horretan egoitza bat eraikitzen ari dira.

Bizkaiko beste ezein eskualdetan, plaza publikoen estaldura ez dago ezarritako irizpidearen azpitik. Azpieskualde batzuk irizpide horren azpitik daude, adibidez, EZKERRALDEAN eta BARAKALDON, baita BUSTURIALDEAN, LEA-ARTIBAIN eta BASAURI-ETXEBARRI-GALDAKAOAN ere. Kasu horietan guztietan, azken kasu horretan izan

ezik, azpieskualdeetan ia udalerrri mailakoak diren irabazi asmorik gabeko fundazioak daude. Galdakaon egoitza berria eraikita (lehen aipatu duguna), erantzuna eman ahal zaio egoera horri.

3. PLAZEN ESTALDURA EGUNEKO ZENTROETAN

Eguneko zentroen kasuan, eszenatokia ez da egoitza zentroetakoaren modukoa. Eguneko

zentroko plaza berriak sortu behar dira eskualdeetan eta azpieskualdeetan. Dirudienez, sorrera hori oso egokia da BILBON, baita BARAKALDOKO eta EZERRALDEKO azpieskualdeetan ere ; hala ere, kasu honetan, MEATZALDEAK zurgatu egin dezake, neurri batean, eskaria. Halaber, BASAURI-ETXEBA-RRRI-GALDAKAKO eskaria NERBIOIK zurgatu ahal du. URIBEREN kasuan, beharizan hori hurrengo urteotan aktibatu ahal diren udal zerbitzuetatik bete ahal izango da.

EGOITZA ESTALDURAK BIZKAIAN (2005 - 2012)								
Eskualdea / Azpieskualdea	2005		2008		2010		2012	
1. Bilbo	3,93	2.955	5,14	107	5,27	207	5,20	155
1.1. Bilbo	3,93	2.955	5,14	107	5,27	207	5,20	155
2. Ezkerraldea - Enkarterri	3,59	2.103	5,75	440	5,85	509	5,77	468
2.1. Ezkerraldea	2,89	725	4,41	- 149	4,33	- 170	4,28	- 188
2.2. Barakaldo	2,63	527	5,87	175	5,77	158	5,70	144
2.3. Meatzaldea	5,66	374	7,45	163	9,11	277	8,98	272
2.4. Enkarterri	6,96	477	8,65	251	8,50	245	8,39	240
3. Ibaizabal - Nerbioi	2,87	1.008	4,42	- 204	4,62	- 135	4,56	- 160
3.1. Durangoaldea	2,60	305	3,29	- 202	3,23	- 212	3,19	- 220
3.2. Arratia	6,24	328	8,02	159	9,79	255	9,62	251
3.3. Basauri-Etxebarri-Galdakao	1,96	270	2,90	- 290	2,85	- 302	2,881	- 311
3.4. Nerbioi	2,39	105	7,90	128	7,76	124	7,66	121
4. Busturia - Uribe	5,60	2.576	7,40	1.106	7,80	1.314	7,69	1.382
4.1. Uribe	5,77	1.393	7,13	515	7,65	651	7,54	635
4.2. Busturialdea	4,91	448	5,92	84	5,82	76	5,74	70
4.3. Mungialde-Txorierri	7,69	536	13,54	597	13,31	591	13,13	586
4.4. Lea-Artibai	3,45	199	3,44	- 90	4,91	- 5	4,84	- 9
GUZTIRA	4,02	8.642	5,67	1.448	5,86	1.894	5,79	1.745

EGOITZA PUBLIKOEN ESTALDURAK BIZKAIAN (2005-2012)								
Eskualdea / Azpieskualdea	2005		2008		2010		2012	
1. Bilbo	0,16	119	0,77	- 552	0,76	- 559	0,75	- 582
1.1. Bilbo	0,16	119	0,77	- 552	0,76	- 559	0,75	- 582
2. Ezkerraldea - Enkarterri	0,77	451	1,34	- 92	1,52	12	1,50	0
2.1. Ezkerraldea	0,72	181	1,25	- 62	1,23	- 69	1,21	- 74
2.2. Barakaldo	0,06	12	0,06	- 289	0,06	- 294	0,06	- 299
2.3. Meatzaldea	2,81	186	4,62	207	6,32	325	6,23	324
2.4. Enkarterri	1,05	72	2,26	52	2,22	50	2,19	49
3. Ibaizabal - Nerbioi	1,30	458	2,37	305	2,60	396	2,57	390
3.1. Durangoaldea	2,12	249	2,78	150	2,73	147	2,69	145
3.2. Arratia	1,14	60	1,52	1	3,36	100	3,31	99
3.3. Basauri-Etxebarri-Galdakao	0,40	55	1,23	- 37	1,21	- 41	1,19	- 43
3.4. Nerbioi	2,14	94	5,83	191	5,73	190	5,66	189
4. Busturia - Uribe	1,53	706	1,76	120	1,99	228	1,96	218
4.1. Uribe	2,14	517	2,08	140	2,53	254	2,50	249
4.2. Busturialdea	0,85	78	0,85	- 59	0,84	- 62	0,83	- 64
4.3. Mungialde-Txorierrri	0,82	57	2,53	72	2,49	70	2,45	69
4.4. Lea-Artibai	0,94	54	0,93	- 33	0,92	- 34	0,90	- 36
GUZTIRA	4,02	8.642	1,40	-219	1,53	77	1,51	26

EGUNEKO ZENTROKO ESTALDURAK BIZKAIAN (2005- 2012)								
Eskualdea / Azpieskualdea	2005		2008		2010		2012	
1. Bilbo	0,48	357	0,85	- 117	0,83	- 130	0,82	- 140
1.1. Bilbo	0,48	357	0,85	- 117	0,83	- 130	0,82	- 140
2. Ezkerraldea - Enkarterri	0,75	441	0,95	- 28	0,94	- 38	0,92	- 47
2.1. Ezkerraldea	1,02	256	0,91	- 22	0,90	- 26	0,89	- 29
2.2. Barakaldo	0,40	80	0,42	- 117	0,41	- 120	0,41	- 123
2.3. Meatzaldea	0,91	60	2,56	104	2,52	103	2,49	102
2.4. Enkarterri	0,66	45	1,09	6	1,07	5	1,06	4
3. Ibaizabal - Nerbioi	0,58	204	1,13	46	1,11	39	1,09	34
3.1. Durangoaldea	0,68	80	0,97	- 4	0,95	- 6	0,94	- 7
3.2. Arratia	0,97	51	0,97	- 2	0,95	- 3	0,94	- 3
3.3. Basauri-Etxebarri-Galdakao	0,35	48	0,71	- 40	0,70	- 42	0,69	- 44
3.4. Nerbioi	0,57	25	3,06	91	3,01	90	2,97	90
4. Busturia - Uribe	0,50	230	0,87	- 60	0,99	- 3	0,98	- 10
4.1. Uribe	0,62	150	0,72	- 67	0,87	- 31	0,86	- 35
4.2. Busturialdea	0,41	37	0,79	- 20	1,04	4	1,03	3
4.3. Mungialde-Txorierrri	0,44	31	1,16	11	1,14	10	1,12	9
4.4. Lea-Artibai	0,21	12	1,26	15	1,24	14	1,22	13
GUZTIRA	0,57	1.232	0,93	- 160	0,94	- 132	0,93	- 162



IV. eranskina

Araudia

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren zorroan dauden zerbitzuak, adineko pertsonen arlokoak, honako araudi honek arautzen ditu.

Zerbitzuen zorro osoari aplikatzeko moduko araudi orokorra

- Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/96 Legea.
- Gizarte zerbitzuen arloko funtzioak zehazteari buruzko uztailaren 30eko 155/2001 Dekretua.
- EAEko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen nahiz profesionalen eskubideen zein betebeharren gutuna eta iradokizunen nahiz kexen araubidea onetsi dituen apirilaren 6ko 64/2004 Dekretua.
- Gizarte Ekintza Sailaren iradokizunen eta kexen araubidea erabiltzaileen arreta unitatearen bidez arautu duen abuztuaren 24ko 119/2005 Foru Dekretua.
- Gizarte zerbitzuen baimenari, erregistroari, homologazioari eta ikuskapenari buruzko martxoaren 10eko 40/98 Dekretua.
- Bizkaiko Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroaren Sorrerari buruzko martxoaren 26ko 62/2002 Foru Dekretua.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 26ko 117/2005 Foru Dekretua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Adineko Pertsonen Kontseilua berregituratzeari eta arautzeari buruzkoa. 160/2005 Foru Dekretuaren bidez aldatuta.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 20ko 211/2005 Foru Dekretua, Adineko Pertsonen baloraziorako Batzorde Teknikoa berregituratzeari eta arautzeari buruzkoa.

Kontribuziorik gabeko pentsioa

- Gizarte Segurantzaren kontribuziorik gabeko prestazioak ezartzeari buruzko abenduaren 20ko 26/1990 Legea.
- Gizarte Segurantzaren Lege Orokorreko Testu Bategina onetsi duen 1/1994 Legegintzako Errege Dekretua.

- Gorteeikiko Harremanetarako Ministerioaren eta Gobernu Idazkaritzaren martxoaren 15eko 357/1991 Errege Dekretua, 26/90 Legeko kontribuziorik gabeko pentsioak garatu dituen.
- Martxoaren 15eko 357/1991 Errege Dekretua aldatu duen (Gizarte Segurantzaren sistemako kontribuziorik gabeko pentsioen eskubiderako baldintzak egiaztatzeari dagokionez) urtarrilaren 30eko 118/1998 Errege Dekretua.

Gizarte Ongizateko Fondoa

- Lan, Osasun eta Gizarte Segurantza Sailaren maiatzaren 26ko 129/1986 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Ongizateko Fondoko pentsioak arautu dituen (zaharrentzako eta lanerako gauza ez direnentzako pentsioak).
- Maiatzaren 26ko 129/1986 Dekretuaren alde batzuk aldatu dituen otsailaren 23ko 38/1988 Dekretua; horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Ongizateko Fondoko pentsioak arautu (zaharrentzako eta lanerako gauza ez direnentzako pentsioak) eta horien zenbatekoa handitu da.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Ongizateko Fondoko pentsioak arautzeari (zaharrentzako eta lanerako gauza ez direnentzako pentsioak) eta horien zenbatekoa handitzeari buruzko dekretuaren alde batzuk aldatu dituen ekainaren 12ko 163/1990 Dekretua.

Oinarrizko Errenta

- Gizarte Bazterkeriaren aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legea. Azaroaren 10eko 8/2000 Legearen, azaroaren 10eko 9/2000 Legearen eta abenduaren 27ko 10/2000 Legearen bidez (Gizarte Eskubideen Gutunari buruzkoa) aldatuta.
- Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-sarrera arautu duen apirilaren 20ko 198/1999 Dekretua.
- Gehieneko katastro-balioak ezarri dituen 2006ko maiatzaren 15eko Agindua.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuetui buruzko abenduaren 29ko 5/2005 Legea, 10/2000 Legea aldatu duena, 2006rako Oinarrizko Errentaren zenbatekoei dagokienez.

Pentsioen eta sorospenen jasotzaileei emandako banakako dirulaguntzak

- Pentsioen eta sorospenen jasotzaileei emandako banakako dirulaguntzak arautu dituen otsailaren 22ko 19/2000 Foru Dekretua, urtarrilaren 30eko 9/2001 Foru Dekretuaren bidez aldatua.

Gutxieneko Bermeko Laguntza Prestazioa

- Bizkaiko Lurralde Historikoaren arloko gutxieneko bermeko laguntza prestazioa arautu duen otsailaren 12ko 13/2002 Foru Dekretua.

Zerga-hobariak

Bizkaiko Lurralde Historikoan zerga-hobariak lortzeko, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak emandako ezintasun maila onartzeari, adierazteari eta kalifikatzeari buruzko abenduaren 23an emandako 1971/1999 Errege Dekretuak arauturiko ezintasunaren kalifikazioa lortu behar da (2000ko urtarrilaren 26ko 22. zenbakiko EAO).

Adineko pertsonentzako jardueren eta programen sustapena, pertsonen arteko harremanetarako eta zahartze aktiboko prozesuetarako

- Bizkaiko Foru Aldundiak abenduaren 27an emandako 221/2005 Foru Dekretua, Gizarte Ekintza Sailaren dirulaguntza-deialdi publikoa onetsi duena (2006rako), adineko pertsonen arloan.
- Bizkaiko Foru Aldundiak urriaren 4an emandako 133/2005 Foru Dekretua; horren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko adineko pertsonentzako "Adineko 2006" programako jarduerak egiteko baldintzak ezarri eta programa horren barruko jardueretarako dirulaguntzen emakida arautu da.
- Adineko pertsonentzako lehiaketan deialdiak egiteari buruzko Foru Dekretua.

Ezintasuna duten adineko pertsonentzako laguntza teknikoen eta etxebizitza barrua egokitzearen sustapena

- Ezintasuna duten pertsonentzako 2006rako laguntzen deialdia onetsi duen Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 28ko 185/2005 Foru Dekretua (gaur egun, ezintasuna duten pertsonentzat).

Etxeko telelaguntza zerbitzua

- Gizarte Ekintza Sailaren telelaguntza zerbitzua arautzeari buruzko Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 16ko 202/2004 Foru Dekretua. Abenduaren 15eko 238/2004 Foru Dekretuak horren akatsak zuzendu ditu.
- Gizarte Ekintzako Foru Sailaren telelaguntza zerbitzuaren aplikazioari eta horren prezio publikoari buruzko azaroaren 16ko 196/2004 Foru Dekretua.

Etxeko laguntza zerbitzuen sustapena

- Toki Erakundeei eta Udal Partzuergoei 2006rako emandako dirulaguntzen deialdi publikoa arautzeari buruzko Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 28ko 188/2005 Foru Dekretua; dirulaguntza horiek mende-kotasuna duten adineko pertsonen etxerik etxeko laguntza ordaintzeko erabiliko dira, pertsona horiek egoitzako plaza lortzeko itxarote-zerrendan daudenean, mende-kotasuna duten adineko pertsonentzako egoitza foru zerbitzu publikoaren araudian ezarritakoaren arabera.

Dementzia duten adineko pertsonen laguntza psikosoziala emateko programen sustapena

- Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 27ko 221/2005 Foru Dekretua, Gizarte Ekintza Sailak adineko pertsonentzako 2006rako dirulaguntzen arloan egindako deialdi publikoa onetsi duena.

Eguneko zentroa

- Mendekotasuna duten adineko pertsonentzako eguneko zentroi buruzko urriaren 17ko 202/2000 Dekretua.

- Abuztuaren 22ko 145/2001 Foru Dekretua, honako hau arautu duena: Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasunekoak diren Adineko Pertsonentzako (mendekotasuna dutenak) Eguneko Zentroetan sartzeko sistema, mendekotasuna duten Adineko Pertsonen Eguneko Zentroetan hitzarturiko edo adosturiko plazak eta mendekotasuna duten Adineko Pertsonen Eguneko Zentroetan hitzartu edo adostu gabeko plazak lortzeko banakako dirulaguntzen emakida.
- Azaroaren 13ko 167/2001 Foru Dekretua, abuztuaren 22ko 145/2001 Foru Dekretua arautu duena, eta azken horrek honako hau arautu du: Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasunekoak diren Adineko Pertsonentzako (mendekotasuna dutenak) Eguneko Zentroetan sartzeko sistema, mendekotasuna duten Adineko Pertsonen Eguneko Zentroetan hitzarturiko edo adosturiko plazak eta mendekotasuna duten Adineko Pertsonen Eguneko Zentroetan hitzartu edo adostu gabeko plazak lortzeko banakako dirulaguntzen emakida.
- Abenduaren 23ko 213/2002 Foru Dekretua, 3. artikulua eta bigarren xedapen gehigarria aldatu dituena, 145/2000 Foru Dekretuan 2003rako ezarritako kreditu-mugari dagokionez; eta azken dekretu horretan honako hau arautu da: Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasunekoak diren Adineko Pertsonentzako (mendekotasuna dutenak) Eguneko Zentroetan sartzeko sistema, mendekotasuna duten Adineko Pertsonen Eguneko Zentroetan hitzarturiko edo adosturiko plazak eta mendekotasuna duten Adineko Pertsonen Eguneko Zentroetan hitzartu edo adostu gabeko plazak lortzeko banakako dirulaguntzen emakida.
- Abenduaren 16ko 265/2003 Foru Dekretua, 5. nahiz 13. artikulua eta bigarren xedapen gehigarria aldatu dituena, 145/2000 Foru Dekretuan 2004rako ezarritako kreditu-mugari dagokionez; azken dekretu horrek honako hau arautu du: Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasunekoak diren Adineko Pertsonentzako (mendekotasuna dutenak) Eguneko Zentroetan sartzeko sistema, mendekotasuna duten Adineko Pertsonen Eguneko Zentroetan hitzarturiko edo adosturiko plazak eta mendekotasuna duten Adineko Pertsonen Eguneko Zentroetan hitzartu edo adostu gabeko plazak lortzeko banakako dirulaguntzen emakida.
- Martxoaren 23ko 39/2004 Foru Dekretua, 145/2001 Foru Dekretuko 13. artikulua aldatu duena; azken horretan honako hau arautu da: Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasunekoak diren Adineko Pertsonentzako (mendekotasuna dutenak) Eguneko Zentroetan sartzeko sistema, mendekotasuna duten Adineko Pertsonen Eguneko Zentroetan hitzarturiko edo adosturiko plazak eta mendekotasuna duten Adineko Pertsonen Eguneko Zentroetan hitzartu edo adostu gabeko plazak lortzeko banakako dirulaguntzen emakida.
- Azaroaren 28ko 187/2005 Foru Dekretua, 145/2001 Foru Dekretuko bigarren xedapen gehigarria aldatu duena, 2006rako kreditu-mugari dagokionez; azken dekretu horretan honako hau arautu da: Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasunekoak diren Adineko Pertsonentzako (mendekotasuna dutenak) Eguneko Zentroetan sartzeko sistema, mendekotasuna duten Adineko Pertsonen Eguneko Zentroetan hitzarturiko edo adosturiko plazak eta mendekotasuna duten Adineko Pertsonen Eguneko Zentroetan hitzartu edo adostu gabeko plazak lortzeko banakako dirulaguntzen emakida. Horri, gainera, hirugarren xedapen gehigarria erantsi zaio, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauari buruz egindako aipamenari dagokionez.
- Urtarrilaren 24ko 3/2006 Foru Dekretua, abuztuaren 22ko 145/2001 Foru Dekretuko 12. artikulua aldatu duena, eta azken horrek honako hau arautu du: Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasunekoak diren Adineko Pertsonentzako (mendekotasuna dutenak) Eguneko Zentroetan sartzeko

sistema, mendekotasuna duten Adineko Pertsonen Eguneko Zentroetan hitzarturiko edo adosturiko plazak eta mendekotasuna duten Adineko Pertsonen Eguneko Zentroetan hitzartu edo adostu gabeko plazak lortzeko banakako dirulaguntzen emakida, bertan dementzia duten pertsonen laguntzarako plazei eta ezintasun fisikoa duten pertsonen laguntzarako plazei buruz ezarritako zenbatekoei dagokienez.

Boluntario-taldeen sustapena zaintza informalen laguntzan eta arreta

- Bizkaiko Foru Aldundiak abenduaren 27an emandako 221/2005 Foru Dekretua; horren bidez, Gizarte Ekintza Sailaren dirulaguntza publikoen deialdia onetsi da, adineko pertsonen arloan, 2006rako.

Egoitzetako aldi baterako egonaldia

- Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak hirugarren adineko egoitzako gizarte zerbitzuei buruz martxoaren 10ean emandako 41/1998 Dekretua, maiatzaren 31ko 125/2005 Dekretuaren bidez aldatua.
- Mendekotasuna duten adineko pertsonentzako egoitzen foru zerbitzu publikoa arautu duen abenduaren 16ko 11/2005 Foru Araua.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 20ko 212/2005 Foru Dekretua; horren bidez, mendekotasuna duten adineko pertsonentzako egoitzen foru sailean integraturiko zentroyen batzorde iraunkorra sortu eta arautu da.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 20ko 210/2005 Foru Dekretua; horren bitartez, mendekotasuna duten adineko pertsonentzako egoitzen foru zerbitzu publikoa eskuratzeko araubidea eta aldi baterako egoitza zerbitzua emateko baldintzak (familiakoak eta zaintzaileak lasaiago ibiltzeko) arautu dira.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 20ko 203/2005 Foru Dekretua; horren bidez, mendekotasuna duten adineko pertsonentzako egoitzen foru zerbitzu

publikoaren aplikazioa erabaki eta horren prezio publikoa arautu da, aldi baterako egoitza zerbitzuari dagokienez (familiakoak eta zaintzaileak lasaiago ibiltzeko).

Mendekotasuna duten adineko pertsonen oporretarako programen sustapena

- Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 27ko 221/2005 Foru Dekretua, Gizarte Ekintza Sailak adineko pertsonen arloko dirulaguntzei dagokienez (2006rako) egindako deialdia onetsi duena.

Mendekotasuna duten adineko pertsonentzako egoitzen egonaldi iraunkorra

- Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzaren martxoaren 10eko 41/1998 Dekretua, hirugarren adinerako egoitzako gizarte zerbitzuei buruzkoa; maiatzaren 31ko 125/2005 Dekretuaren bidez aldatuta.
- Mendekotasuna duten pertsonentzako egoitzen foru zerbitzu publikoa arautu duen abenduaren 16ko 11/2005 Foru Araua.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 20ko 212/2005 Foru Dekretua; horren bidez, mendekotasuna duten adineko pertsonentzako egoitzen foru sailean integraturiko zentroyen batzorde iraunkorra sortu eta arautu da.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 20ko 210/2005 Foru Dekretua; horren bitartez, mendekotasuna duten adineko pertsonentzako egoitzen foru zerbitzu publikoa eskuratzeko araubidea eta aldi baterako egoitza zerbitzua emateko baldintzak (familiakoak eta zaintzaileak lasaiago ibiltzeko) arautu dira.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 20ko 202/2005 Foru Dekretua; horren bidez, mendekotasuna duten adineko pertsonentzako egoitzen foru zerbitzu publikoaren (egoitza iraunkorrean) aplikazioa eta horren prezio publikoa arautu da.

